

# Gauak beldugarriak dira Riadeko Ritz-Carlton hoteleko apopiloentzat



Pello Zubiria Kamino  
@pellozubiria

Mohamed bin Salman Saudi Arabiako printze gazteak esku bete lan eduki zuen azaroaren 4an, larunbata. Hasteko, Riadera berak ekarrarazirik, dimisioa eman zuen Saad Hariri Libanoko lehen ministroak. Bestetik, Yemendik matxino huthiek jaurtitako misil bat iritsi zen Riadeko aireporturaino. Hirugarrenik, herrialdeko aginte osoaren jabe egin nahi duen Salmanek ekin zion elite politiko eta ekonomikoko zientoka jauntxoren atxiloketari. Urak arre datoz Arabiako basamortuetan.

“Ekialde Hurbileko hiriburuetan Riad da segurtasun faltan txapeldun, hemen 32 urteko printze batek aginte absolutua eskuratu nahian egiten dituen urratsak iritsi dira inguruko herrialdeak balantzaka jarri eta beren lehen ministroak kargugabetzeraino. Are okerragoa, badirudi printze honi haizea ematen diola zertan ari den ez dakien lehendakari iparramerikar batek”. Saudi Arabiaki bizi duen irakinaldia honela laburbildu du David Hearst erredaktore buruak Ekialde Hurbileko aktualitatearen termostro izan nahi duen *Middle East Eye* hedabidean.

Saudi Arabiako erregea oraindik Salman bin Abdulaziz Al Saud da, bere 81 urteekin, baina haren seme eta oinordeko Mohamed bin Salman gaztea da erresumako aginte makilaren jabe, aditu guztien arabera. Azaroaren 4an saudiarren armadak doi-doi lortu zuenean lurreratzea Yemendik matxino huthiek bidalitako misila –lehenbizikoz hiribururaino iristea lortu zutena– denak oroitu ziren Salman printzeaz: berak aginduta hasi zuten saudiarrek Yemen go gerra, Iranen indarra ahuldu nahian. Gero gerra konplikatu zitzaizen Riadeko militarrei eta gosetez bezala koleraz Yemen hondamendira amiltzea baino askoz gehiago ez dute lortu.

Azaroaren 4 horretan zabaldu zen Saudi Arabiako armadaren buru izandako Mutaib bin Abdallah atxilotu zutela. Horretan ere Salman printzearen zigorra ikusi zuen mundu guztiak, baina

inork gutxi espero zuena zen bihar-munean herrialdeko eliteko 200 pertsonalitate atxilotu, Ritz-Carlton hotolean giltzaperatu eta guztiei ondasun oro kenduko zienik. Aurretik, printzeak iragarri zuen erresumako eliteen ustelkeria ikertzeko batzorde berezi baten sorrera, bere lanean edozein lege edo arauraren gainetik ariko dena. *Middle East Eye* beste kronika batean zabaldu duenez, iturri fidagarrietatik jakin dute Ritz-Carltonen bahitutako batzuk torturatuak izan direla, beste gauzen artean atzerrian dauzkaten diru eta ondasunen informazioak *kantatu* ditzaten.

Etxe barruko arerioak inolako mugarik gabe jipoitzeko adina indar duen Salman printzeak bere kontrolpean dauzka Saudi Arabiako hiru armadak, munduko petrolio konpainia handiena den Aramco, erresumako afera ekonomikoen batzorde nagusia –zeinetatik gainbegiratzeko baitu han burutzen ari diren pribatizatze operazio erraldoia–... Eta orain, gainera, bere esku hartu du hedabide saudiar nagusien kontrol osoa, Qatarreko Al Jazeera kendentu mundu arabiarrean kontsumituenak diren ART, MBC eta Rotana Media kateena.

Atxiloketekin Salman printzeak kapital metatze basatia ere burutu du. Atxilotutako aberatsok milaka milioi dolar dauzkate inbertituak Twitter, Apple, Citibank eta beste hainbat konpainiatan, gehi mundu osoko konta ezin ahala jauregi eta higiezininetan. *Bloomberg*ek aipatu du blokatutako kontu korrontee-



tan bakarrik 33.000 milioi dolar eskuratu ote dituen Salmanek.

Bahitutakoen artean dago Bakr Ben Laden, abizen bereko familia ospetsuak daukan BTP eraikuntza holdingaren lehendakaria eta Meka hiri santuan higiezin merkatuko erreferentzia nagusia. Milaka milioi dolar galtzen ari zen taldea 2015ean gobernuak kontratu publikoetatik kanpo utzi zuenetik, iaz bertan 77.000 langile atzeritar kale gorrian utziak zituen.

## Saudiak Iran zigortu... Libano jipoituz

Salman printzearen sarekadak harra-patutako beste bat Saad Hariri da, uztailean bertan kiebra jotako Saudi Oger konpainiaren jabeetakoa. Ironiaz bezala, horrek eraiki zuen notable eta aberatsen presondegi bilakatutako Ritz-Carlton hotela, justu egun batzuk lehenago “Basamortuko Davos” deitutako mundu mailako gailur ekonomikoaren kokagune izan zena. Baina gainera Hariri... Libanoko lehen ministroa da.

Hariri, bezperan mundu guztiak lasai eta irrifartsu ikusi zutena, gauetik goizera Riaden agertu zen bere dimisioa ematen Libanoko lehen ministro kargutik. Michel Aoun lehendakari kristauak ez dio onartu. Libanoko indar politiko-militar nagusia den Hizbullahen buru Hassan Nasrallahk salatu du Hariri bahituta daukatela Riaden, hura askatzeko eskatuz. Agintari saudiarrek kate motzean loturik baimendutako elkarriketa batean, *Future TV* kate libanoa-



*Beiruteko gobernuaren argazkilari ofiziala den Dalati Nohraren erretratuan, Saad Hariri Libanoko lehen ministroa eta Mohammed bin Salman Saudi Arabiako printzea Riaden urriaren 30ean, patxada itxurak egiten. Bost egun geroago, telebistan atzeritik mintzatu zitzaizen Hariri libanoarrei adierazteko kargua uzten zuela bere borondatez. Hori baino aitzakia gutxiagorekin hasi izan da gerra franko.*

rrean esan du bera aske dagoela Riaden eta laster itzuliko dela Tripolira, baina bere jokaldiarekin herriakideak ohartarazi nahi zituela: "Libanoko populuaren artean *shock* positibo bat eragin nahi izan dut, kontura dadin zein puntutaraino dagoen egoera larrian". Hain kinka larrian ote?

Libano erdiz-erdi harrapatu du gero eta gehiago gerra itxura hartzen ari den Saudi Arabiaren eta Iranen arteko talkak, Londresen LSE unibertsitatean irakaslea den Madawi Al-Rasheedek honela laburbildu duenez: "Saudi Arabiaren azken karta Libanon: Israel erabiltzea Hizbullah kolpatzeko". Salman printzeak disimulurik gabe bere atzerri politikaren ardatzen artean jarri baldin badu duela gutxi arte arabiarrentzako tabu zirudiena, alegia Israelekiko elkarlana -Irani aurre egiteko, hori

bai- tentatua egon litekeela irandarrei jipoia emateko... libanotarren ipurdian. Yemenen bi potentziek morroi bidez daramaten borrokan nagusitzea lortzen ez duenez, Salmanek menturaz horrela orekatuko luke balantza.

II. Mundu Gerratik hona Libano Saudi Arabiaren eragin esferan mugitu da. Tripolin beti sunitak izan dira lehen ministroa eta bere ingurua, eta aldi berean negozioak egin dituzte Arabian, hango familiekin nahasiz. Ordainetan, Riadeko agintariak aliantza horrekin egin izan diete aurre Ekialde Hurbileko etsai nagusiei, 50eko hamarkadan Gamal Abdel Nasser panarabista ezkertiarri, 1980tik Irani. Iranek Hizbullah bidez ondo asmatu baitzuen bereganatzen ordura arte bazter geratutako xihita jendea. Iran eta Hizbullahen erresistentziagatik ez balitz, oraindik Libanoko

hegoalde osoa bere mende edukiko luke Israelek.

Libanoko gobernuaren gerra zibil luzea amaitzeko formularen partekatzen dute joera politiko eta erlijioso oso ezberdinetako ordezkariak, tartean kristauak, sunita saudizaleak eta xiita iranzaleak. Salman printzeak, dirudienek, joko hori ere amaitutzat eman nahi du eta edozertarako dago prest Libanon Iranek daukan eragina ezabatzen. Baita Israelekin elkartuta ere.

Betidanik kokapen geopolitiko txit konplikatu daukan Libano larrialdi egoeran sartu da berriro. Egun batetik bestera aurki daiteke arabiarrek bertan dituzten inbertsio guztiak etenda, kapitalik gabe eta, gainera, zientoka mila libanoar Riadetik etxeratzera derrigortuta. Eta europarrok geundeke hurrengo errefuxiatu uholdearen atarian. ■

**ZINKUNEGI OPTIKA**

Hernani, 23 · 20004 Donostia  
T. 943 420 624  
info@zinkunegioptika.com  
www.zinkunegioptika.com

**50 urtez elkarrekin**

Marc Badal, hankak lokatzetan

# «Historiaren estolda-zulotik joandako mundu baten ondorengoak gara»

Hernanin bildu gara Luzaiden bizi den bartzelonarrarekin, bilera-oste eta bazkalaurreko tartean. Marc Badali buruzko informazioa bilatzean, honelakoekin egin ohi da topo: nekazaritza ekologikoa, okupazioa, autogestioa... Izan ere, orain 20 urte mendiko eta landa-eremuko esperientzia libertarioak ezagutu zituenetik buru-belarri ibili da gizarte-erlaketaren praktikan.



Danele Sarriugarte Mochales

@daneleSM

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

## Nondik datorkizu landa-eremuarekiko interesa?

Landa-eremuko okupazioaren barruan askotariko jendea dago, badaude pun-karen girotik zetozenak, hiriko bizimodu eroa utzi eta mendira joan zirenak, gero beste batzuk hippyagoak... Baina gu hiriko militante petoak ginen. Ni neu, nire adiskideak eta gaur egun lankideak direnak buru-belarri geunden sartuta hiriko okupazio-mugimenduan, eta militantzia politikoaren bitartez hurbildu ginen landa- eta nekazal-eremura.

Bartzelonan geundela ezagutu genituen halako esperientziak, Sasé (Huesca) eta Arizkuren (Nafarroa) herri okupatuak, besteak beste, eta gizarte-zentro autogestionatuak kide batzuk hasi ginen autokritika egiten, ea guk egiten genuen hura, etxe okupetako festetan garagardoa saltzea, nolako autogestioa ote zen.

**“Barrikada utzi eta urazak landatzera” joan omen zineten. Nolatan?**

Bartzelonan halaxe esaten ziguten, hi-

tzez hitz. Hasieran, mendira joandako haiek ikertzen hasi nintzen, eta gero ni bihurtu nintzen haietako. Mundu berri bat deskubritu nuen herri okupatu haietan, eta sentipen hori oso indartsua da. Leku txundigarriak izan ohi dira, zu bizi zaren tokia ez bezalakoak, eta proiektuak ere izugarriak iruditzen zaizkizu. Gero, sakondu ahala, gabeziak ere ikusten dituzu, baina 20 urteen irakinaldi horretan iruditzen zaizu halako toki batean askoz gehiago landu daitekeela eguneroko baliabideen autogestioa, ez soilik arlo materialean baizik eta harremanetan eta antolakuntza moduetan. Beste kontu bat da gero benetan zer dagoen, eta luze eta zabal hitz egin genezake genero harremanez eta botere rolez, baina praktikaren miseriak dira horiek, proiektu guztietan baitago, printzipioz, hori dena eraldatzeko asmoa.

## Zer ingurutan ibili zara?

Hasteko, esan moduan, Sasén egon nintzen, husteko arriskuan baitzegoen eta azkenean hustu baitzuten. Jende mor-

do bat bildu ginen han Guardia Zibila-ren zain, eta ez zetozenez, Arizkuren antolatutako zituzten topaketa batzuetara joateko esan ziguten, eta hara joan ginen. Gero, karrera amaitzera itzuli nintzen Bartzelonara, eta ikasketa amaierako lana egiteko Pirinioetako okupazio

## Marc Badal Pijoan

Bartzelona, 1976

Nou Barrisekoa da baina urteak egin ditu Pirinio inguruetan, Huescan eta Nafarroan. Ingurumen zientziak ikasi zituen, eta agroekologiaren alorreko master bat egin. Artikuluak eta liburuak idatzi ditu landa-eremuko talde esperientziez, nekazalgoaren historiak eta hazien joan-etorriez. Gaur egun, Cristina Enea fundazioko Haziera hazi artxiboaz arduratzen da, eta Kanpoko Bulegoa kolektiboko kidea da.



esperientziak ikertu nituen, batez ere Garrotxa eta Ripollès eskualdeetakoak. Zortzi urte egin nituen etxean, joan-etorrian, gauzak koordinatzen eta. Nafarroa, Huesca eta Alta Garrotxa ziren nire gune nagusiak.

### Zer-nolako proiektuak ziren?

Ildo horretan dabilen jendeak hautatu ohi dituen tokiak nahiko muturrekoak dira, beraz, proiektu gehienek auto-hornikuntza dute helburu. Halako tokietan, normalean kanpoan lan eginez lortzen da dirua, mahatsa edo sagarra biltzen, edo akaso etxean egindako kosmetikoen ekoizpen txiki batekin. Berdurak edo haragia modu ekologikoan ekoiztu eta saldu nahi badituzu, badaude toki aproposagoak, beraz hala egin nahi dutenek bestelako tokietara jo ohi dute.

### Hasierako "euforia" pasata, bestelako hausnarketak argitaratu zenituen landa-eremuko astintzearen mugez (*Fe de erratas: La agitación rural frente a sus límites*).

Urte asko egin nituen estatu osoan hitzaldiak ematen gai hauei buruz. Gero, Madrilgo *Bajo el asfalto está la huerta* kolektiboko Dani Lópezek eta biok liburu kolektibo bat koordinatu genuen, 50 lagunen testuak eta esperientziak biltzen zituena. Dani Madrilen zegoen eta ni harat-honat ibiltzen nintzen, fanzi-neak motxilan. Urte luzez egokitu zitzaizdan koordinatzaile- eta dinamizatzaile-lanak egitea eta, halako batean, giroan nahiko irakurriak ziren zenbait autore hasi ziren landa-okupazioaz hitz egiten munduko arazo guztien konponbidea balitz bezala, eta hitzaldietan ere baze- goen beti norbait halakoak esaten zitue- na: "Hemen egin behar duguna zera da, Lakabekoak bezala, dena utzi eta mendira joan". Joera horri erantzuteko idatzi- nuen testua. Urte asko egin ditugu gure proiektuak saltzen eta zabaltzen, eta oso ondo dago, ez diot gure proiektuak zentzugabeak direnik inolaz ere, bai- na ez ditzagun gure buruak ez besteak engaina, esanez hauxe dela panazea eta denek egin behar luketela guk bezala.

### Muga materialak aipatzen dituzu tes- tuan.

Maila materialean, autogestioaren kon- tua nahiko mugatua da, ezin zara mer- kantzien ekoizpen industrialaren sare- tik guztiz atera: gasolina behar duzu,



materialak, tresnak... Asko murriztu dezakezu, eta egia da Sasén adibidez bertako buztina eta harriak erabiliz eraikitzen zirela borda txikiak, baina salbuespena da hori. Eta, gero, elikadu- raren auto-hornikuntza zertan datzan, ba, oilo batzuk, baratzetxea, esnea... Inork ez ditu urte osoko zerealak edo lekaleak landatzen. Beraz argi dago hori birpentsatu beharra dagoela.

### Edonola ere, zure iritzian, muga ez-mate- rialak dira gakoak.

Arlo pertsonalean eta elkarbizitzan, hortxe egiten dute huts gure proiektuek. Ez da gure kontua bakarrik, oro har mundu guztiak egin ohi du huts horretan, edozein lan-eremu eta familia- tan daude gatazkak. Ez gaude besteak baino hobeto, baina ezta okerrago ere. Hori bai, egia da gure proiektuen hel- buru nagusietako bat dela marko berri bat ezartzea harremanetarako, elkarre- kin bizitzeko, hazkuntza pertsonalera- ko... Bakoitzak jakingo du zer asmorekin joan den halako toki batera, baina esan- go nuke helburua ez dela, bere horretan, baratzea edukitzea; baratzea bitartekoa da, baratzea nahi duzu zuk ereindakotik

jateko, beste pertsona batzuekin batera eraikitzeke eta abar. Hala ere, halako ko- munitateak ezagutu eta alde egin duen jende asko dagoen moduan, ezagutzen dut Arizkurenen edo Lakaben urte mor- do bat egin duen jendea, eta hor jarrai- tzeko asmoz dagoena. Hortaz...

### Zu ez zara hirira itzuli, eta Luzaiden bizi zara orain.

Halako komunitateetan egon garenok, eta horiek utzi arren mendian jarraitu nahi genuenok, %90ak talde txikiagota- ra jo dugu. Nik aspalditik neukan argi ez nuela talde handietan bizi nahi. Bizi izan naiz beste lau lagunekin, beste bi lagu- nekin, eta orain dela bost urtetik kidea eta biok gaude Luzaiden.

### Zer aldatu da lehen urte haietatik hona?

Bertako jendearekiko harremana. Atze- ra begira, esango nuke nabarmen aldatu dela hori, guk garai hartan ez geneukan inongo harremanik landan bizi zen gai- nerako jendearekin, guztiz at bizi ginen, eta harremanik izatekotan liskarra iza- ten zen gehienetan. Egia da errazagoa dela harremana egitea bi pertsona izan- da (eta gainera, senar-emaztetzat har-



## Kanpoko Bulegoa

Kanpoko Bulegoa kolektiboan dabil buru-belarri Badal. Hanka bat Luzaiden dauka, landan, eta bestea, berriz, kultura garaikidean: hala, “hor tartean dagoen eremua jorratu nahi dugu”, eta horretarako sortu dute kolektiboa, “landako kulturari eta lurraldeari eskainitako gogoeta-eragilea”. Aurten, Arnegi eta Luzaideko ibarraren bi aldetara bizi diren jendeak bildu dira, eta horren fruitua da bilduma baten lehen alea: *Endemis[t] moak: muga bizileku*. Informazio gehiago, Baserriko Arte Sarearen webgunean.

tzen bazaituzte), 20 lagun izanda baino, auzoek ez baitakite nor bizi den han eta nor ez, ez eta bizibiderik ote duzuen. Baina, nire kasuan behintzat, eta uste dut hala zela guztion kasuan, garai hartan ez geneukan interesik han inguruko jendearen historian.

Orain, ordea, bestela da. Apurka-apurka lanagatik ere kontaktuan jarri nintzen ghettotik kanpoko nekazari-antolakunde eta abarrekin, eta hasi nintzen gehiago irakurtzen nekazalgoaren historiaz, aztertzen zer gertatu den bizi

garen nekazal-mundu horretan eta, ondorioz, zer pentsatzen duen gure modukoak ez den jendeak.

**Hain justu ere, nekazal-mundu zahararen desagerpenaz hitz egiten duzu oraintxe berrargitaratu den liburuan: *Vidas a la intemperie, nostalgias y prejuicios sobre el mundo campesino*.**

Mendira joan garenoi askotan egozten digute nostalgiko hutsak izatea, historiaren estoldatik bota duten mundu bat berreskuratu nahi omen dugulako, baina,

egia esan, gehienok ez dugu mundu hori ezagutzen, nahiz eta gehienok nekazarien ondorengo izan, bigarren edo hirugarren belaunaldian. Nekazal-mundu zaharreko jendeak ez zuen inoiz idatzi bere historia, bestek baizik, gizonak batez ere. Nekazal-munduaz idatzi diren topikoak berrikusi eta desmuntatu nahi nituen.

### Nola joan da mundu hori historiaren estoldatik behera?

Faktore askoren ondorio da, eta lurralde bakoitzak baditu bere ezaugarriak. Baina apur bat atzera joz gero, lur komunalen itxiera berebiziko porrota izan zen, XVIII. eta XIX. mendeetan, eta horrekin batera estatu modernoa sortu zen, dena zentralizatu, nekazal ekonomia monetarizatu zuen estatuak... Lurraldearen kudeaketaren kontua errotik aldatu zen, eta sekulako kolpea hartu zuen jende xeheak; gainera, orduantxe, eta ez kasualitatez, industrializazioa abiatu zen, eta proletarioak sortu.

Bestalde, ezin ahaztu Europaren kolonizazio proiektua. Huraxe izan zen, batetik, kapitalaren jatorrizko pilaketaren gune nagusietako bat, ondoren Industria Iraultza egiteko balio izango zuena, baina, horretaz gainera, Karibeko plantazioetan saiatu zen lehen aldiz, modernitatean, eskala handiko monokultibo bat, langile esklaboek jorratua. Azukrea, batez ere. Ekoizpen logika berri bat saiatu zen. Gero, lurjabe europar handiak –Katalunian, esate baterako, Codorniu eta Freixenet–, kolonietan irabazitako diruari esker eta Ilustrazioaren abaroan, hasi ziren agronomia eskolak sortzen eta beren lurretan teknika berriak sartzen. Nekazaritzari buruzko ikuspegi berri bat eratu zen, elikadura-industria abiatu zen...

**BERTSOLARI  
TXAPELKETA  
NAGUSIA  
2017**

**Finalurrekoak 2.itzulia**

••• **Azaroak 19, AMURRIO**

••• **Azaroak 26, DONIBANE LOHIZUNE**

••• **Abenduak 2, IRUÑEA**

Antolatzailea

Laguntzailea



ARGIA

[bertsozale.eus](http://bertsozale.eus)

**DATU PERTSONALEN BABESA**

**EUROPAKO ARAUTEGI BERRIA**  
Zure enpresa egokitzen  
lagunduko dizugu



**SIGACUS**

© 943 453 588 · www.sigacus.com

**LUAarkitektoak**

hirigintza  
hirigintza aholkularitza  
udal planak  
urbanizazioak  
peritazioak  
balorazioak  
etxebizitza proiektuak  
birgaitzeak  
barne diseinua...

Río Arga Kalea 28, 31014 Iruña  
Tel 948 13 26 97  
lua@luark.com

**MARCOS**  
*okindegia*

**Benetako  
aitzinako ogia**

© 943 450 966  
Ubarburu pasealekua, 113  
Astigarraga (Gipuzkoa)

**tradebi**

**EB Traducciones Itzulpenak, S. L.**

**tradebi@tradebi.com**



### Eta Espainiako Estatuan?

Espainiako Estatuan, XX. mendean, frankismo izeneko gauza bat gertatu zen, eta 40 urte horietan izugarrikeria handiak egin ziren, baina, besteak beste, landa-eremua hustu zen, nekazal-ekoizpena suntsitu, eta lehen sektoreko erakunde eta sindikatuen indar kolektiboa guztiz desartikulatu.

Ezin izan dut ehuneko ehunean egiaz-tatu, baina esango nuke herri abandonatuen fenomenoak guztiz espainiarra dela, eta espainiarra diot frankismoaren ondorio delako: Pirinioetan 400dik gora herri daude hutsik. Herriak, bai, eliza, hamabost etxe eta 70 borda handi dauzkatenak. Estatuan, 1.500 inguru dira herri hutsak, kontuan hartu gabe baserriak, masiak eta kortijoak.

Harira itzulita, frankismoaren ondoren trantsizioa etorri zen, ordurako lehen sektore profesionala zanpatuta zegoen, bai antolamendu aldetik bai animo aldetik, eta 1986an, Espainiak Europan sartu nahi izan zuenean, orduan etorri zen azken ezpata-kolpea: Herbehereek, Alemaniak eta Frantziak onartu zioten sartzea, betiere zenbait nekazal sektore saltzen bazituen, batez ere esne-ganadua, erlantz kantauriarrari eragin ziona.

### Aldea nabarmena da, beraz, Euskal Herriko hegoalde edo iparralde...

Bai, Luzaiden argi ikusten da. Gipuzkoako eta Bizkaiko kasua berezia da, industrializazioa dela medio, baina Nafarroa Garaia adibidez asko eragin zion orain frankismoaz kontatu dizudan guztiak,

eta kontrastea egiten du Beherearekin edo Zuberoarekin. Iparraldean jende gazte asko ikusten da artaldearekin, elikadura-artistautzaren legeri esker halako inbertsio handirik egin gabe sal ditzakete gaztak, azoka itzelak daude, eta batez ere, Iparraldeko erakunde kolektiboez eta, oro har, Frantziako nekazari-sindikatuak sekulako indarra daukate. Edonola ere, joera bat dago, eta Iparraldean ere esplotazio txikiak itxi egin beharko dute 20-30 urtean.

### Zer joera da hori?

Gaur egun ez dauka zentzurik Europan janaria egiteak, Errusiatik edo Brasiletik edo dena delakotik baitator. Inperatibo ekonomikoak agindutako inperatibo teknikoak dio eskala handiko ekonomiak baino ez direla errentagarri, eta oraingoz posible denez gauzak urruti eramatea petrolioari esker, bada, familia mailako ekoizpen txikiak ez du etorkizunik. Gogoan izan behar dugu, hala ere, oraindik badagoela gure inguruan nekazaritzatik bizi denik, baina datuak ezin dira ukatu. Gipuzkoan, eta aspaldiko datua da, biztanleria aktiboaren %0,8 baino ez zen nekazaritzan ari. Hain justu ere, herrialdeen garapen maila eta modernizazioa halaxe neurtzen dira: zenbat eta nekazaritza gutxiago, orduan eta modernoago eta garatuago herrialdea. Faktore asko daude, baina, esan bezala, erregai fosilei esker jaten dugu gaur egun jaten dugun moduan, eta badakigu horiek agortu egingo direla berandu baino lehen... Beraz, akaso guk ez dugu ikusiko, baina joera derrigor aldatuko da. ■

## 156



Estitxu Garai Artetxe

EHU-KO IRAKASLEA

@egarai

**G**aur arteko bidean Kataluniako herriak ez du gutxi erakutsi. Ausardia eta duintasuna. Kementa eta inteligentzia. Ezina ekinez egina. Bagenekien, halere, lehenago edo geroago Estatuaren horma krudel eta bortitzarekin topo egingo zutela. Une horrek sortzen zituen zalantzak. Errepresioari aurre egiteko gaitasunak. Aurre egiteko edo behintzat eusteko.

Bada, igaro zen urriaren 1eko erreferenduma. Igaro zen eta lezio berri bat eman ziguten. Erabateko konbenzimenduz jantzitako herritar oldea geratzea ez da hain erraza. Zailtasunak zailtasun, herritarrek boto-kutxak bete zituzten. Ondoren, atzera-aurrera batzuen ostean, emaitzak aintzat hartu eta iritsi zen hainbeste itxarotako eguna: Kataluniako Errepublika aldarrikatu zuen parlamentuak. Estatuaren erantzuna ere esperotakoa izan da: 155 artikulua aitazkiapean, estatu kolpea Kataluniako erakundeei, kartzela eta jazarpena.

Hortik aurrera bi erraileko bidea ikustear geundela uste genuen: batetik, errepresioari aurre egiteko ekintzena; bestetik, errepublika materialki mamitzeko urratsena. Lehenengoak hartu du indarra, ordea. Salbuespen egoera erabatekoa izanik, erantzun antierrepresiboan murgilduta daude herritarrak eta ordezkari politikoak. Kanean, protesta masiboak; erakundee-tako ordezkariak, berriz, salaketa politikoan, gatazka nazioartekotzeko eta Espainiako Estatuaren autoritarismoa erakusteko ahaleginetan.

Jarrera hori erabat ulergarria den arren, errepublikaren garaipenerako funtsezkoa da herritarrek, orain arte bezala, egingarria dela sinestea. Uste osoa izatea, kosta ahala kosta, herriaren indarrari esker lortuko dutela. Horretan biziki lagunduko luke estatu-egiturak osatzen ari direla irudikatzeak.

**Batasuna mantentzea funtsezkoa izango da beste behin ere. Ez da hauteskunderietan jausteko garaia. Eta batasuna mantentzeak ez du inondik inora ere zerrenda bakarrean joatea esan nahi; herri-estrategia bateratu bati erantzutea baizik**

Gauza nimiño eta sinbolikoak badira ere, mentalki beste agertoki batera darama herritargoa. Jendeak sugarra erne mantentzeko aurrerapausoren bat beharko luke, esaterako prozesu konstituziogilean. Egoera latza eta gogorra

izanik ere, ilusioa ez zapuzteak berebiziko garrantzia du.

Beste horrenbeste gertatzen da abenduko hauteskundeei begira. Erabat deialdi antidemokratiko eta salbuespenekoa izateaz gain, marko diskurtsibo arriskutsua gailentzen ari da: 155aren aurkako eta aldeko blokeak. Horrek egoera Kataluniako Errepublikaren aldarrikapenaren aurreko sasoiara leheneratzen du. Arazoa 155a izango balitz bezala eta ez Espainiako demokrazia eza. Independentismoari komeni ez zaion atsekabea sor dezake horrek. 155a gaindituta, 156etik aurrera josi behar dira borondateak. Narratiba berri bat beharko dute. Blokeak irudikatzeotan, honakoak hobetsiko nituzke: errepublikaren aldekoak eta kontrakoak. Izan ere, horrek mentalki jada existitzen den errepublikaren defentsan jartzen ditu herritarrak, aurrera bidean. Errepublikari hauteskontzietan beste berme bat emateko balio dezatela hauteskunderiek.

Halaber, telebista piztu besterik ez dago Espainiako aparatuen beldur nagusiak zeintzuk diren ikusteko: independentisten batasuna eta legitimazio demokratikoa. Behin eta berriro hedatzen ari dira alderdi eta ordezkari independentisten artean arrakala sortzeko eta irudikatze mezuak. Batasuna mantentzea funtsezkoa izango da beste behin ere. Ez da hauteskunderietan jausteko garaia. Eta batasuna mantentzeak ez du inondik inora ere zerrenda bakarrean joatea esan nahi; herri-estrategia bateratu bati erantzutea baizik. Amore emateko tentazioa izango du batek baino gehiagok, baina egindako bidea ez da alferrik igaro. Orain arte bezala eutsi eta aurrera jarraitzeko indar zakukada bat bidaltzeko balio dezatela azken lerro hauek. Etsitzeak, euren ez ezik, gurean ere atzera bueltarik gabeko eragina izango bailuke denbora luzez. ■



# Azalaren memoria

**H**amar urte inguru nituela hel-duagoa zen mutil batek modu jarraituan gehiegikeriak eragiten zizkidan. Lagunekin ikusten nuenean dardarka hasten nintzen, gaur ez medez, pentsatzen nuen. Baina debalde, bere lagunei “*Voy a por ella*” esan eta atzetik etortzen zen. Korrika joaten nintzen baina segituan harrapatzen ninduen. Bazterrean atzetik heldu eta oso gogor estutzen ninduen “*Como grites...*” esaten zidan. Ez zuen beste ezer gehiago esan beharrik. Orduan gorputz guztia ukitzen zidan paretaren kontra jarrita, buruz behera jartzen ninduen hanketatik helduta... Lagunen artean sortzen zuen beldurraren babesean, bere boterea medio, inpunitate osoz jarduten zuen. Orain tortura baten moduan sentitzen ditut ekintza horiek guztiak.

Hamar urteko haur batek sexualitatearekin dituen harremanak bere sexuaren esplorazioarekin dituenak izan ohi dira, edo-eta bide horretan inguruko lagunekin konpartitzen dituen ekintzak. Adin horretan zikina sentitzen nintzen, lotsatuta, nire errua zela pentsatzen nuen, gauetan isilean negarrez lokartzen nintzen. Fisikoki eta psikologikoki oso zapalduta nengoen. Egoera aldatzeko asmoz ihes egiteko



Nora Barroso  
EHU-KO IRAKASLEA  
@axala\_n

Jazarpn baten historia da hau, inguruaren isla dena. Modu batera edo bestera pertsona ugarik bizi izan dute antzeko pasarteren bat, forma ez da berdina izango baina boterearen gorputza bera da

modua eraiki nuen -bera baino bizkorragoa izan behar dut, horrela ez nau harrapatuko-. Eta hala egin nuen. Trebatu nahian, korrika egiten nuen eta toki guztietako eskailerak binaka igotzen hasi nintzen. Lortu nuen eskailerak ziztu bizian igotzea; nire borroera

nekatu egin zen eta egoerei ihes ahal egin nien.

Isilagoa bihurtu nintzela sentitzen dut, begirada tristatu zitzaidan, amets gaiztoak areagotu ziren; lokartzerakoan beti gauza bera, norbaitengandik ihesi eta ezin hankak mugitu. Gauza txar hori nire sekretua zen, ezin nuen kontatu; hasieran beldurragatik, gero lotsagatik, ondoren “ba, denbora asko pasa da...”. Zama horrekin eraiki behar izan dut sexualitatea eta nire buruarekiko dudan maitasuna; hau guztia pisutsua izan da oso.

Minak gainditzeko modu ugari daude, ulertu ala ez errespetatu behar direnak. Eta ulertu dut hamar urteko neskatila hura dela gaur hemen idazten ari dena, biharko emakumea ere badela gaur hemen dagoena, gaur ez naizela atzo baino ausartagoa eta momentuan barruari begiratzeko eman diodan aukeran egon dela gakoa nirean, bizipenak metatu ahala irtenbideak eraldatzen joan direla eta harro nagoela korri egiteko erabakia hartu izanaz, lehenengo segundotik hasi zen iraulteta.

Jazarpn baten historia da hau, inguruaren isla dena. Modu batera edo bestera pertsona ugarik bizi izan dute antzeko pasarteren bat, forma ez da berdina izango baina boterearen gorputza bera da. ■

## ARGIAren buletin@

Orain gaika ere bai:  
feminismoa, euskara,  
herri mugimenduak,  
kultura, ekonomia soziala...



Sartu eta aukeratu  
zure informazioa:

[www.argia.eus/buletinak](http://www.argia.eus/buletinak)

ARGIA

## Ez hain eskura



Aingeru Epaltza  
IDAZLEA ETA  
ITZULTZAILEA  
@AEpaltza

**K**ataluniako lehendakari Carles Puigdemontek errana Bruselako erbestetik: “Independentziaz landa, posible da bertzelako hurreman mota bat Espainiarekin”. Generalitateko Hezkuntza kontseilari Clara Ponsatí ere handik da mintzo: “Kataluniako Gobernuak ez zegoen behar bezain prestatuturik urriaren 1eko emaitzei jarraipen politikoa emateko”. Min ematen du PPKo, PSOEko eta Ciudadanosko bozeramaileei darien pozak.

Erreferendumaren egunean Bartzelonan ibilitako euskaldunak miretsirik itzuli ziren hauteslekuen inguruko giroaz. Hango kemena. Hango indarra. Hango ilusioa. Xalotasuna ere aipatu zuen baten batek, xalotasun txundigarria. Jendeak eskura, oso eskura, ikusten zuen bere ametsa. ERCko bozeramaile Sergi Sabriàk iruzkina egin dio bere alderdikide Ponsatíri: “Estatu autoritario baten bortizkeria mugagabeari aurre egiteko, horrexetarako ez zegoen prestatuturik Kataluniako Gobernuak”. Herritarrek zilegi duen xalotasuna barkaezina da buruzagi politikoarengan.

Rajoy galtzaile ageri zen urriaren 1eko iluntzean. Independentziaren makina ziztu bizian zihuan, traba guztiak gainditzeko gauza. Independentistak puntuz puntu betetzen ari ziren beren ingeniarietako ondutako plana. Ezinaren erakusgarri zen Estatuaren erantzun zakarra. Prozesua indartzera zetozen boto-emaile baketsuen artean polizia espainiarrak partitutako egurra.

Noiz izoratu zen *procés*a? Seguru aski, urriaren 2an berean. Geroztik, egoeraren irakurketa oker baten ondoriozkoak dirudite independentisten erabaki gehienek. Aurkariek ez dute huts bera egin.

Nago polizien borrak bezain eraginkor gertatu dela enpresen ihesa. Goizetik arrats, errealitatearekin muturrez mutur topatu da Kataluniako herritar arrunta. Independentzia ez da doakoa. Badu bere kostua. Bizkarrean. Patrikan. Askatasunerako bidea ez dago lorez apaindua, dolorez baizik. Harriz. Sasiz. Azken sastakada, 155. artikulua aplikazioa: irabazi berririk gabe gelditu ez ezik orain artekoak galtzeko arriskuan kausitu dira katalanak.

Bazuten erresistentzia baketsuaren sokatik tiraka segitzea. Aldarrikatutako estatu berria karrikan defendatzea. Ez dute bide hori urratu nahi izan. Koldarkeria? Norberaren indarrak neurtu ondoren hartutako erabakia, aukeran. Ez zen hainbertze jende prest odola, izerdia eta malkoak isurtzeko edo isurarazteko.

“Normalizazioaren itzulera”. Horra Mariano Rajoyren leloa Generalitatearen eskumenak bahitu dituenetik. Nonbait, Kataluniako herritarren puska handi batek horixe du amets: eromenezko urte hauen akabaila. Zer gailenduko da, haserre edo nekea? Abenduaren 21ean jakinen dugu nor okertu den. Grazia putarik ez luke izanzen *procés*aren emaitza izateak Inés Arrimadas ikustea Kataluniako lehendakari. ■

## AHTri ez eta ez



Itziar Bardaji  
Goikoetxea  
IRAKASLEA

**M**urrizketa guztien ginetik, Madrildik konpetentzia foralak inbadituz, borroka herritar historikoari ezikusia eginez, bere horretan jarraitzen dute Geroa Bai/EAJk eta gobernu espainolak. AHT bai ala bai.

Kapitalismoak gero eta gehiago produzitu nahi du, merkatua globalizatu eta abiadura handiko korridoreen bitartez lan baldintza ahulenak eta kontsumo gaitasun handienak konektatu. Gune merkaturatu funtzionalak nahi ditu, hiriak, eta haien arteko landa eremua ustiatu daitekeen terriorioa da mundu osoan: energia produzitzeko, nekazaritza produkzio kapitalistarako, hondakinak erre edo lurperatzeko, landa turismorako, produktu-merkantzia eta pertsona-merkantziak

abiadura handian garraiatzeko. Herriak, kulturen eta komunitatearen azken arrastoak gordailu, ahuldu; ustiapen horren aurkako erresistentzia ahultzekotan.

Prozesu hau legitimatzeko, desarrollismoa: garapen kutsu bat badu orduan ona da, (ez al da ba progresoa egungo zapalkuntzen eta hondamendi ekologikoen azalpena? Txist!). Garapenaren ideologiak azkarrago mugitu nahi dugula konbentzitzen gaitu. Merkatuaren nahia gizartearen nahiaz mozorrotzen saiatzen da. Akumulazio prozesuak aurrera darrai jendarte baketsuan. Logika honen baitan txertatzen da Abiadura Handiko Trena.

Horregatik, AHT ez eta ez. ■

# Anaiz Funosas Bake Bidea-ko presidentea “Luhuso efektua armagabetze bidean izan zena izatea nahi dugu Parisko manifestazioa”

Baiona, 1979. Hazparneko Herriko Etxean hautetsi abertzalea da egun, bertakoa da izatez. Presoen aldeko Askatasuna elkarteko kidea izana. Bake Bideako presidentea da, Aieteko Bake Konferentziaren ondoren sortu zen mugimendua. Aiete lehenik, Luhuso herriko gertakariak ondoren eta Baiona erdigune izanik ETArek armagabetze ekimenak mugarri izan dira Ipar Euskal Herrian. Anaiz Funosasek erran digunez, “Parisen, abenduaren 9an, manifestazioa beste mugarri bat izatea” espero dute.



**Mikel Asurmendi**

@masurmendi

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

Aieteko Nazioarteko Konferentziatik sei urte iragan dira; 2011ko urrian egin zen. Iparraldeko jendartearen ordezkari zabalak bildu zen bertan, hainbat hautetsi barne. Bake Bidea haren ondoren sortu zen. Ipar Euskal Herriko eragile politikoak euskal gatazkaren konponketan aitzindariak izan dira harezkerok.

## Zer ekarri du Bake Bidea mugimenduak azken sei urteetan?

Hasteko, bake prozesua aitzina eramateko kontzientzia hartze gisako bat. Jendarteak bake prozesuan toki bat duela eta bere parte-hartzea funtsezkoa dela sinestea erdietsi dugu. Aieteko Adierazpena izan zenean, eragile ia guztiek bakea negoziazioaren eskemaren baitan bideratuko zela pentsatzen zuten, hots, gobernuen eta talde armatuaren arteko elkarrizketen logikaren bidean. Aieten aldaketa eman zen, zeregin hori delegatu baitzen. Aldaketa ez da gure lanaren ondorioz bakarrik eman, baina logika hura aldatu da. Bidez bide, jendarteak ulertu du zein den egin beha-

rreko bidea, poliki-poliki urratzen ari dena; hots, bidea gero eta adostuagoa bada, bake justu eta iraunkorrago batera iritsiko gara. Iparraldean hori gauzatzeko oztopoak izan ditugu bistan da, alta, horiek helduleku izan daitezten lan asko egin dugu. Etapaz etapa, beste etapa batera iristeko asmoz, adostasuna lortzeko bidean, ikasiz. Lehen ideia hauxe izan zen: adostu dezagun bide bat eragile politiko guztien artean, lurralde honek Frantziako Estatuari zer eskatzen dion garbi adierazteko.

## Aieteko adierazpena Hegoaldean izan zen, baina Iparraldean zinez mugarria.

[Donostiako] Aieten bizi izan zenak inarrosi zuen Iparraldea. Adierazpenak hemen behar genuen bidea irekitzen lagundu zigun. Hautetsien eta mugimendu sozialaren artean bide bat adostu izana urrats handia izan zen. Gatazkaren soluziorako irtenbide moduko bat ikusarazi zigun. Ondorioz, Frantziako Estatua euskal gatazkaren inguruan kontzientzia gisako bat hartzen joan dela erran dezakegu. Duela sei urteko

giroa eta egungoa ez da bera. Bake Bidea-ko kideok inoiz baino argiago ikusten dugu bake prozesuak nondik pasa behar duen...

## Nondik pasa behar du?

... bada armagabetzea egin ondoren, presoen auzibideari konponbide bat emateko behar diren mekanismoak ongi aktibatu behar ditugu, ondoren, prozesua bermatzeko. Bake bide honetan lehentasuna Iparraldeko eragile guztientzat, presoen auzia konponbidean jartzea da, baina, presoen auziaz batera, biktimen arazoari kasu eman behar zaio prozesuan. Bake Bideak presoen kolektiboak [EPPK-k] uztailean ezagutarazi zituen gogoetaz balorazio baikorra egin du. Horrek presoen auziari irtenbide integral bat ematen lagundu dezake fase berri honetan. Izan ere, sei urte pasa dira Aietetik hona, eta presoen auzian ez da aldaketarik izan, familiek segitzen dute dispersioaren politika pairatzen. Presoen auziak lehentasuna dauka. Horretarako dator abenduaren 9ko Parisko manifestazioa.



**Aieteko Adierazpenaren ondoren, Luhusoko atxilotetak eta ETaren armagabetzea ekimen mugarriak izan dira.**

Beharbada, Hegoaldeko jendea ez zen arras ohartu hemen urratzen ari zen bideaz. Luhusoko gertakariak iraganaren eta geroaren arteko mugarri bat ezarri zuten prozesuan, bereziki, hainbat jendek arrisku handia hartu zutelako. “Luhuso efektua”-k Hegoaldeko jendartean eragin zuen. Iparraldean denok bagenekien, goiz ala berant, hemengo gizarte zibilak inizatiba hartuko zuela. Baina lehen urratsa, berriz diot, Aieten eman zen, hemengo eragile politikoen-tzat mugarria izan zen. Lehen aldikoz, Frantziako Estatuan Iparraldeko jendartea eta hauen ordezkari-tza bakea sustatzeko eragile bezala kontuan hartu da nolabait.

**Luhuson jende esanguratsua atxilotua izanak –bakegileak izendatuak– jendartean eragin du bereziki.**

Aldaketarako ukaldia orduan eman zen. Teorizatzeaz harago, bake bidean gizar-tea aktibatua izatea zein garrantzitsua

den agerrarazi baitzuten atxilotuek. Luhuson gertatua gogoeta partekatua izan da jendartean: armagabetzea gizar-te zibilarekin batera egin behar dela berretsi zen, prozesua jendartearen babesarekin egin behar dela. “Luhuso efektua” deitua izan da horregatik, eta horregatik aitzina hartu zutenei eskertu zaie behin baino gehiagotan, arriskua hartu izateagatik. Arrisku horiek bake prozesua bideratzeko ezinbestekoak izan dira.

**Egun zein unean dago bake prozesua? Bakea ideia lausoa baita, betiere.**

Engaiamendu hau hartu dugunok bada-kigu, armagabetzea berez ez dela bakea. Baina, arriskuak arrisku, gero eta gehiago engaiatzeko unean gaude. Bakegileek erakutsi duten filosofiaren ildoan bidea areago irekitzen lagundu behar du jendarteak, jendeak badaki armagabetzeak ez duela bakea ekarriko. Izan ere, armagabetzea bake prozesuaren ondoren gauzatu izan ohi da, akordio baten baitan. Aldiz, hemengo bake prozesua eta beste herrialde batzuetan eman diren

» “Ez dezagun inor tronpatu, euskal afera ez dago Barne Ministerioaren agendan, Frantziako Estatuaren agendan”

bake prozesuak ez dira berdinak. Euskal Herrian bake prozesu batean gaudela dio Bake Bideak, ez negoziazio eskema batean, beraz, gure engaiamendua elkarbitzita eraikitze bitartekoak lantzen joatea da, elkarbitzita sustatzeko bide bat osatzea.

Armagabetzea eman ondoren, jendartearekin batera, bakegileak, gizar-te zibila eta lurraldeko hautetsi gehienak engaiamendu baten baitan ari gara. Kontziente gara, auziari irtenbidea emateko, mekanismoak ezarri behar ditugula justizia trantsizionalaren baitan.

## Iparaldean beste kultura politiko bat da-goela ohartu dira Hegoaldeko eragile politikoak. Zer iritzi duzu horretaz?

Hainbat arrazoi daude horrela pentsatzeko. Adibidez, ni Askatasuna mugimenduko bozeramaile izan naiz, hemengo hautetsi batzuk seinalatu nituen errepresio garai latzenetan. Baina, Aietez geroztik elkarrekin lan egiten hasi ginen eta elkar onartzen ikasi dugu. Alta, horrek ez du erran nahi ados garelako gure helburu politikoetan, baina ados jarri gara elkarbizitza sustatzeko. Gure konbentzimendua da, bake prozesua gero eta determinatuagoa bilakatu ahal, bake prozesuaren helburua zehatzagoa izan daitekeela, eta horrek berme gehiago ematen digula agertoki ahalik eta justuenera iristeko.

## Ipar Euskal Herriko ordezkariak esparru politikoko jende esanguratsua osatua dago. Euskal Elkargoko lehendakari eta Baionako auzapez Jean-René Etchegaray, Giza Eskubideen Frantziako Ligako ohorezko lehendakari Michel Tubiana, Laborantza Ganbararen sortzaile Mixel Berhokoirigoin, Pirinio Atlantikoetako diputatu Vincent Bru, baita zu ere. Zer iritzi duzu beraietaz?

Lehenik eta behin, ardura politikoz ari den jendea da. Garai batean ematen zuen ezin zutela edo genuela [hautetsia da bera ere] gure erantzukizun hau hartu, alabaina, erakutsi dute posible dela, eta nik hori errekonozitzen diet. Kontzientzia hartze kolektibo bat eman da hemen. Hegoaldean, sektore politikoaren arteko aldeak “definituagoak” daude, alde bat hemen eta bestea hor. Hemen ez dago ezagupen instituzionalik, ez da egon gatazka politiko baten bizipen azkarra. Hala ere, Aieteko adierazpenaren ondoren, hemengo sektore politiko guztiek onartu zuten gatazka politiko baten existentzia, hori izan da gakoa. Pausoa izugarria izan zen, euskal auziari zein soluzio eman behar zaion, denon artean adostu behar baitugu. Eta zeregin horretan, bidean denok zerbait jarri dezagula sinetsi behar dugu, baita sinetsi ere Frantziako Estatuak ardura hartu behar duela bide horretan. Sinetsi behar dugu bide hori egiteko gaitasuna dugula, bide bat eraikitzen dela iraganean gertatu zena alde guztiek kontatua, ez baitugu interpretazio bera egiten, baina batak besteara ulertu behar du gutxienez.

## ALDAKETA ZAZPI PRESOEN ESTATUSETAN

Didier Agerre, Ibon Fernandez Iradi, Itziar Plaza, Jon Bienzobas, Zigor Garrro, Asier Borrero eta Jon Salaberria euskal presoak DPS estatusa (Preso Berziki Atxilotua) kendu zieten azaroaren 12an. Preso hauek partikularki seinalaturako zerrendatik kendu izanak esperantza zabaldu du bake prozesua bermatzeko lanean ari direnen artean. Frantziako Justizia Ministerioaren eta Euskal Ordezkaritzaren artean zabalduak “lan esparru”-ren lehen emaitza gisa ulertu daiteke. Bake Bideak aditzera eman duenez, Parisko manifestazioa urrats lagungarria izanen da.

Presoen gaia Frantziako Gobernuaren ordezkarien eta Euskal Ordezkaritzaren agendan dago, baina tentu handiz tratatua izan da orain arte. “Gaixo diren presoak”, “euren hurbiltzea” edota “zigorra bukatzen ari direnen egoera” ongi bideratzea izan dituzte eztabaidagai mintzakideek. Horiei irtenbide egokia ematea omen da euskal ordezkariaren eskakizunen artean.

Aipatutako zazpi presoak DPS estatusaren barrutik atera izana pauso garrantzitsutzat jo behar da. Hasteko eta behin, neurri horrek presoaren eguneroko bizitza errazten du, baita euren mugimenduak askeagoak izatea ere. Esaterako, DPS estatusak EPPK-ren (Euskal Preso Politikoen Kolektiboa) ordezkari lanetan ari direnei modu eraginkorrean aritzea oztopatu izan die orain arte.

Orain, galdera da, Frantziako Estatutik heldu den neurri aldaketa honek nola eragin dezake Espainiako Gobernuaren jarrera immobilistan?

Mikel Asurmendi

**“Parisko Gobernuaren jarrerak ustekabea hartu gaitu. ‘Lan esparru berria’ zabaldu da euskal preso politikoaren auzian. Irekidura gisako bat da”, esan zenuen iragan astean. Itxaropen handia dago, antza.**

“Ustekabea” ez da hitz egokia. Bake Bideak ez du hori erran. “Lan esparru be-

rra” bat eraikitzea pasa garelako “ustekabea” baino, azken urtetako lanaren ondorio bezala hartzen dut nik. Ipar Euskal Herriaren eraikitako lan eskemari lotua dena, hau da, gogoetatu duguna praktikan jarri da gizarte zibilean, eta instituzioek eta hauen hautetsiek bide horretan batera aritzeko unea iritsi da. Batzuetan, hautetsiak eta eragile sozialak elkarren kontra jarri nahi baitituzte...

## Nork nahi ditu elkarren kontra jarri?

Erran nahi dut, zenbaitetan instituzioek edo ordezkari politikoek beldurra diotela gizarte zibilari, batzuek bederen. Hemen, bake bidea abiatu zenean, ez zegoen, demagun Euskal Elkargoa. Gizarte zibilak ez zuen deusik, baina berak bultzatuta abiatu zen instituzioa, eta bidean noski, hainbat gorabehera izan dira. Bakegintzan ere, beti dira gorabeherak, baina bi aldeek ulertzen dute elkar eta aitzina goaz.

## Apirilean hasi zen antolatzen abenduaren 9ko manifestazioa. Denbora luzez prestatzen ari den ekimena.

Hori da Ipar eta Hegoaldearen arteko desberdintasunetako bat, bizi ditugun bi erritmoen adierazlea. Hemen pauso esanguratsua emateko badakigu denbora luze behar dela, presaka ibili beharrean, luzera begira aritu behar izaten dugu, emango den urratsa atzeraezina bilakatu dadin. Gu emeki ari gara, baina aitzina aldi orotan. Abenduaren 9ra begira lanean jarri ginenetik indar harremanak metatzen eta koordinatzen aritu gara, areago, aldi honetan Euskal Herriaz harago goazelako, Pariseraino. Ahalik eta bide zabalena ireki nahi dugu, ekitaldia mugarria bilakatu dadin. Orain arte une mugarri batzuk bizi izan ditugu, eta une mugarriak izanen dira berriz ere, konfiantza sendotzeko eta gizarte zibila areago aktibatzeko. Frantziako Gobernuak eman duen lehen pausoaren ondoren [Euskal ordezkariarekin biltzea] pauso finkoago bat ematen badu, une mugarri berria izanen da.

## Manifestazioan zuhurtziaz jokatu behar da, beraz.

Bai. Abenduaren 9ko manifestazioa ez dugu *manifa* soiltzat jo behar. Mugarri berri baterako beste urrats handi bat izatea nahi dugu. Luhuso armagabete bidean izan zena izatea nahi dugu, une

azkar bat, bihurgune bat, beste alde batera eramaten gaituena. Lana badago, zeren eta, esaterako, Madrilek ez digu uzten aitzinatzen, mugimenduak blokeatzen entseatzten da.

### Pausoz pauso, baina pausatuki.

Bai, baina aitzina beti. Adibidez, Frantziako Gobernu berria apirilean osatu zen, baina euskal ordezkariak ez zen gobernuak nondik nora joko zuen begira gelditu. Parisera joan ginen eta atean jo. Alabaina, ez dezagun inor tronpatu, euskal afera ez dago Barne Ministerioaren agendan, frantses estatuaren agendan.

### Orduan?

Bada, guk "inposatu" behar dugu agendan egotea. Eta inposatzeko, Ministerioaren dosierak mahai gainean ezartzen ari zirenean, gu han egotea izan zen eragingarria. Euskal Elkargoa sortu



2017ko apirilean eman zen ETaren armagabetzea Baionan, jende askoren artean.

berria zen unean, Jean-René Etchegaray presidentearekin batera joan ginen, Elkargoaren irailaren 23ko Batzar Nagusiaren mandatuarekin, halaber, Vincent Bru diputatu berria bertan zegoela. Beraz, ordezkariak anitzak sostengaturik haxe esan genien: Euskal auzia

Asanblea Nazionalera eraman behar da. Frantses diputatuek gaia kontuan hartu behar dute, hasteko eta behin, giza eskubideak aintzat hartzeko. Baita erran genien ere, sei urte direla Aieteko adierazpena eman zenetik, bake nahia dagoela gure herrian eta horri begira hainbat urrats eman direla, hala nola, ETaren armagabetzea. Ez dela abiatu zen trena aldentzen eta joaten utzi behar.

### Kuraia eta esperantza behar dira.

Kuraia bai, baina esperantza baino gehiago sinesmena behar da. Sinetsi behar dugu, sinetsi gabe ezin dugu aurrera egin. Ipar Euskal Herrian badugu sinesmen hori, gure baitan sinesten dugu, eta sinestearen poderioz sortu dugu egungo eragile politikoaren arteko harremana. Gure konbentzimendua da gaitasuna dugula jendarte mugiarazteko. Sinestea da gakoa. ■

Adi barduliarrek,  
karistiarrak eta  
autrigoiak: baskoien  
hilabetekari berria  
kalean da!



Info gehiago:  
**ELSALTODIARIO.COM**

# Urko Apaolaza Avila *Zuloan* liburuaren egilea: **“TEKLA EGOKIA JOTZEN BADUZU DESPATXUREN BATEAN NORBAIT DARDARKA JARTZEN DA”**

Manu Robles-Arangizek ARGIArekin elkarlana lotu ostean, Urko Apaolaza ELAren bulegora joan eta karpeta arrosa pasa ziotenean hasi zen guztia: “Ikusi orduko ohartu nintzen altxor handia genuela”. Dokumentazio lanari AHTren zulora eginiko joan-etorriak gehitu dizkio kazetariak eta urtebeteren buruan esku artean du hankak lohietan idatzitako liburua.



**Estitxu Eizagirre Kerejeta**

@eeizagirre

ARGAZKIA: DANI BLANCO

**Sindikalista zaildu batekin, ELAko erai-kuntzako Gipuzkoako arduradun Igor San Joserekin sartu zara, kaskoa, peto horia eta botak jantzi eta obretara. Langileekin harremana nolakoa izan da?**

San Joseri antzematen zaio ohituta da-goela obretako hizkera berezian. Telefonoz patronalak deitzen zionean ere, berehala altxatzen zitzaion ahotsa eta sumatzen zen negoziatzen ari zela. Berak urtetan egindako lana izan dut oinarri eta bera da liburu honen protagonista nagusietakoa.

Niretzat hasieran ez zen erraza izan langileen azpimundu horretara sartzea. Harremana faseka joan da: hasieran ez dakite zehazki zertara zoazen eta hizketan hasita, nahiko solte kontatzen dizute beren egunerokoa, kexak... Bigarren fasea beldurrarena da: enpresariak jakiten dute gure lanaren berri eta enkargatua etortzen da zerbait esaten, eta langileak beldur dira kaleratuko ote dituzten. Beldur horretan tokatu zitzaidan une eder bat bizitzea: San Josek egun batean esaten die “honek ezin du horrela izan, hitzarmenaren arabera hau dagokizue, nik kasua eramango dut Lan Harremanen Kontseilura... hemen uzten dizuet nire telefonoa; nor egingo da kargu?” eta une horretan langile batek egiten du: “ekarri hona!”. Hori pauso

handia da, aurpegia ematera pasatzen denekoa. Horrela langileak langak gaintzen doaz, eta hurrengo bisitetan ikusten duzu askoz lasaiago daudela, dagoeneko enpresariak badakite zer dagoen, sindikatuek ere bai, eta langileak sentitzen du “ni ez naute toreatuko”, asko sindikatura afiliatu egiten dira eta beste babes bat sumatzen dute... Borroka batean sartu izanaren kontzientzia hartzen dute. Bistan dena, hortik greba bat egitera bide luzea dago.

**ESKU LEUNeko langile bat “esklabotza” hitzez behin baino gehiagotan izendatu duzun zulora sartuta... Zer diozu AHTko lanaz?**

Oso gogorra da. Eguzki epeletan bazoaz kontainer kanpoan atsedendian zigarroa erretzen ari direnean tira, baina euria edo hotza egiten duenean asko zailtzen da hor egote hutsa. Horrez gain, ordu pila sartzen dute lan astunean. Eta kanpotik etorriak izanik, hemen ez dute babes sarerik. Guri zerbait gertatuz gero familiarengana goaz, lagunengana, sindikatura, alkatearengana... Hauek ahuldade handia dute horretan eta enpresek hori baliatzen dute eurek esandakoa isilik onartzeko. Oihaneko legea da, hitzarmenez desinformazio handia dute langileek.

**“Beren herrian ez dute lanik, eta eurentzat asko da 1.200 euro” tabernan behin eta berriz entzuten duguna...**

Soldatena eskandalagarria da. 5 eta 6 euro kobratzen dute orduko. Sartutako ordu denak ez dituzte kobratzen, eta tarifa horretan sartzen dira ordu estrak, oporrak, dietak, dena. Hitzarmenaren arabera bikoitza ordaindu beharko liekete, eta estrak askoz gehiago, oporrak... egunero 10-11 ordu sartzen dituzte lanean. Langileen Estatutuak dio hilabetean 170 ordu sartu behar dituztela, eta hauek denek 200 ordutik gora sartzen dituzte. Ordu pila horiekin 1.200 euro kobratzera iritsi daitezke agian, baina kotizazioan kakazahar bat agertzen da...

Tabernako komentario hori egitea da errazena, betikoa, “ezer baino hobeto dela”. Hori batzuen egoeraz probestea da, erbesterratu laboralak dira. Beren herrira joatean nahiko ongi ateratzen zaiela? Baina zer baldintzetan lan egingo da? Eta ez dute aukerarik, enkargatuak esandakoari isilik obeditzea, Eta larriena da obra publiko bat dela!

**Hain justu obra publiko bat izaki, nola baimentzen du ikuskaritzak lan hitzarmena ez betetzea?**

Sindikatuari ari da ikuskaritzaren lana egiten eta horrek ez du ez hanka ez bu-




Urko Apaolaza Avila Hernaniko AHTren obretan. ARGIA Jendeari esker ere atera da liburua.

zurik. Ikuskaritzari dagokio bermatzea langileen eskubideak beteko direla eta guk aztertutako kasuetan behintzat ez du bermatzen: epeak izugarri luzatzen ditu, edo ez du erantzuten, erantzuten duenean ez erabat... Pentsa ikuskaritza zorrotz jartzen dela eta enpresak hitzarmena betetzera behartzen dituela, beste edozein sektoretan enpresa guztiek bete behar duten moduan. Enpresei askoz garestiago aterako litzaieke obra eta denbora gehiago beharko lukete AHT egiten; ez dut uste Eusko Jaurlaritzaren nahia hori denik...

### Eraikuntza sektorearen egungo argazki bat ere ematen du AHTk.

AHT paradigma moduko bat da, bai. Lehen enpresek bere langilegoa zuten eta azpikontratatu zuten lan oso espezializatua zen, beraiek egiteko gaitasunik ez zutena. Baina hori guztia erabat desitxuratu dute Aldi Baterako Enpresa Elkarteek (ABEE). ABEEak, hasteko, pastela banatzeko modu bihurtu dira. Enpresa handi hauek merkatua jan dute baina ez dute bere langilegoa handitu, txikitu baizik. Obra batera joan eta Moyua enpresako bi langile aurkituko dituzu, Amenabarreko beste bi... koordinazio lana egiten dute baina kapital humanoa azpikontratek jartzen dute, jendea kan-



**Egilea:** Urko Apaolaza Avila.

**Argitaratzailea:**

Manu Robles-Arangiz eta ARGIA.

**Maketazioa eta inprimaketa:** Antza.

**168 orrialde.**

**Prezioa:** 14 euro.

**Lizentzia librekoa.**

**Etxeratzeko:**

[www.argia.eus/denda](http://www.argia.eus/denda) helbidean eta zure ohiko liburu dendetan.

**Durangozko Azokan:**

Urko Apaolaza ARGIAren mahaian egongo da abenduaren 6an eta 7an. Liburuaz edo gaiaz berarekin mintzatzeko aukera duzu.

**Gaiaren jarraipena:**

[argia.eus](http://argia.eus) webguneko

*Zuloan* blogean.

potik ekarriz. ABEEak obra osoari prezio bat jartzen dio eta normalean merkeenari ematen zaio adjudikazioa, eta ondoren ABEEak azpikontratatu egiten du lana, beraz, esan dezakegu adjudikazio publikoaren azpiko adjudikazio pribatuak

direla, ezkutuan daudenak. Eta Euskal Herriko eraikuntza enpresa txiki pila bat ixten ari dira, joko horretan ezin dutelako lehiatu. Guztien lan baldintzak prekarizatu dituzte, eta langileari baldintza horietan ari edo beste sektore batera joan, ez zaio besterik geratzen. Negozioa gutxi batzuen esku geratu da eta etekin ekonomikoa ere bai. AHTren kasuan oso ikusgarria da esleipena nori egin zaion [ondoko orriko infograman ikus dezakegu]: 10etik 7 Espainiako etxe handientzat izan da, beraz, bertako enpresak aberasten dituen mitoa erori zaigu...

**Liburuan kontatzen duzunez, Zuloan blogean argitaratu zenuen lan esplotazio kasu bat eta patronalaren berehalako erreakzioa sorrarazi zuen, langileen lan baldintzak hobetuz. Euskarazko komunikabide txiki batek sinetsarazi nahi digutena baino gehiago eragiten du?**

Hasieratik nabari duzu patronala begira dagoela, adi. Tekla egokia jotzen baduzu, despatxuren batean norbait dardarka jartzen da. Sindikatu bat eta komunikabide bat elkarlanean ikustea ez zaie gustatzen. Gainera, enpresa hauek oso ohituta daude *periodico* handi erdaldunen agendaren arabera jokatzeko. Etorritzen da hedabide txiki eta euskaldun bat, ulertu ere egiten ez dutena eta itzuli egin behar dietena, eta galduago sentitzen dira.

Erreakzio positiboak eragin ditugu, enpresa konprometitu zen hitzarmena betetzera. Baina ardura ere ematen du, kontrakoa ere gertatu baita, guk argitaratutako beste erreportaje batean aurpegia eman duten langileen bila joan dira. Egin dugun mugimendu bakoitzak erreakzioa eduki du.


### Lan honek zer eragitea nahiko zenuke?

Nahi nuke liburu honen bidez jendeak ikustea zer dagoen horrelako obra baten atzean eta hausnartzea zer ari garen egiten: AHT bihurtu zaigu Euskal Herriko faktoria handienetakoa, erabateko lan-esplotazioan oinarritua, eta oso gutxi altxa dugu ahotsa horren aurka, langileen %80 atzeritarrak direlako. Hemen geratuko da obra hori, guk eta gure bilobek eta birbilobek ordainduko dugu... hemendik mende batera bizi direnak ere jabetu daitezela nola egin zen tren hau, ez zela egin azken teknika puntakoenak erabiliz, atzerriko langileen odola eta izerdia isuriz baizik. ■



# Zeinek irabazten du AHT eraikitzen eta zeinek galtzen du

Euskal Y deituriko abiadura handiko treneko proiektuan, badira enpresa batzuk diru asko irabazten ari direnak. Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko obren esleipenak xehatu ditugu eta haietan 26 enpresa-talde atzeman. Ondorioa garbia da: EAEn AHT eraikitzen gehien kobratu duten hamar konpainietatik zazpi Euskal Herrikan kanpoko multinazional erraldoiak dira. Galtzaile handienak, berriz, izerdia eta odola ordua 6 euroren truke xurgatzen dieten azpikontrataturiko langileak dira.



**%40** Jarduera nagusiki Euskal Herrian duten enpresei esleitutakoa

Espainiako Estatuako enpresa multinazionaleri esleitutakoa **%60**

 6.000

 **ISOLUX CORSÁN**  
CORSÁN-CORVIAM

348

milioi euro

Euskal Autonomia Erkidegoan AHT eraikitzen ari diren behargin kopurua. %80 azpikontratentzat aritzen diren atzerritarrak dira eta ez dituzte bertako lurralde hitzarmenen lan-baldintzak.

 600 KM

Zenbaitetan langileek astero egiten duten bidaiaren luzeera AHTko obretara joateko. Gaez gidatzen dute eta segidan beharrean hasi, nekea eta lan istripuak izateko aukerak handituz.

**ACS**  
ACTIVIDADES DE CONSTRUCCIÓN Y SERVICIOS

**DRAGADOS** **TECSA**

212

milioi euro

 60 ORDU

Hilabetean askotan egiten dituzten ordu estrak. Espainiako Langileen Estatutuak hilabetean 170 ordu baino gehiago egitea debekatzen du, AHTko langileak 242 egitera iritsi dira kasu batzuetan.

 **acciona**

279

milioi euro

 6 EURO

Obra gehienetan azpikontrataturiko beharginei ordaintzen dietena lanordu bakoitzeko. Kopuru horretan daude sartuta opor egunak, aparteko pagak eta dietak.

\*Datu hauek eslelitutako aurrekontuarenak dira, obran zehar izandako gailak ez daude sartuta; zenbait kasutan %10 gehiago izan daitezke.

# Violeta Gonzalez boxeolaria

## “BOXEOA KALEA BERRESKURATZEKO BIDEAN IKUSTEN DUT”

Euskal boxeo bizi berritzen ari da, eta horren adibide dugu Violeta Gonzalez. Otsailaren 11n egin zuen debuta profesionaletan Lasarte-Orian. Euskal Herrian bizi den emakumezko lehen boxeolari profesionala, Neskabox boxeo elkarteko kide da.



**Xuban Zubiria Elexpe**

@xubanzubiria

ARGAZKIA: GARAIZ SANCHEZ

### Asturiar bilbotartua omen zaitugu.

Hala diote bai! 2010ean etorri nintzen Bilbora. Egia esateko etxean bezala sentitzen naiz hemen. Asturiasen jaio eta hazi, bizitzaren gora-beherak ekarri ninduten Bilbora. Bilbok gauza asko eman dit, horien artean boxeo.

### Noiz eta nola hasi zinen boxeoan?

Kasualitatez murgildu nintzen boxean. Ez zen izan espresuki bilaturiko zerbait. Nire barruan zerbaitek klik egin zuen eta horrela hasi nintzen. Probatu nuen momentu berean hartu nion gustua. Afizio txikia zena, egunero ordu asko kentzen dizkidan zaletasun bihurtu da.

### Emakumea eta boxeo, ezohiko binomioa oraindik.

Emakumezkoen boxeoak oraindik oztopo asko ditu gainditzeko. Honen aurrean egunero eskularruak jantzi eta ringera igotzea besterik ez zaigu gertatzen. Boxeoan gabiltzanok ez gaude geldirik, zailtasunen aurrean ere aurrera egin beharra dago. Emakumeok boxeoarekin gizonek bezain beste disfrutatzen dugula demostratu behar dugu eta hori ring batean egiten da. Guk ez badugu egiten inork ez du egingo.

### Bide horretan sortu zenuten Neskabox?

Urtarrilean sortu genuen Josu Lopategui boxeo entrenatzailearen laguntzarekin. Emakumezkoen lehen boxeo elkarte da Euskal Herri osoan. Neskaboxekin erakutsi dugu posible dela emakumezkoen boxeo Euskal Herrian. Uste ez genuen lekuetara iristen ari gara. Honek guztiak harrotasuna sortzeaz gain lanean jarraitzeko indarra ematen dizu.

### Hasiera indartsua izan du Neskaboxek, modan ahal dago Boxeo?

Hedabideetan geroz eta sarriago ateratzen gara eta ez da gutxi. Egun 40 emakume inguruk osatzen dugu Neskabox. Oraingoan, hiruk eman dugu txapelketetara pausoa. Gurea handitzen doan proiektua da. Bakoitzak bere erara boxeoaz nola disfrutatzen duen ikustea da politena. Neskabox txapelketa edo entrenamenduez gaindi lagun koadrila bat da eta horrekin geratzen naiz.

### Honetan guztian Josu Lopateguiren papera oso garrantzitsua izan da.

Euskal boxeo ezin da ulertu Josu gabe. Neskaboxen sorreran ere figura oso garrantzitsua izan da. Josuk boxea maite du guztiaren gainetik eta egun emaku-



meen boxeoaren sustatzaile ere bada gurekin elkarlanean. Askok zor diogu.

### Euskal Herriko lehen emakume boxeolari profesionala zara.

Nire kasuan oso prozesu naturala izan da. Afizioak gehiago entrenatzera eraman ninduen eta entrenamenduek lehiatzera bultzatu naute. Bide horretan oso garrantzitsua izan da Josuk emandako laguntza. Berarekin entrenatzen hasi eta berehala hasi ziren emaitza onak. Hau guztia bere lorpena ere bada.

### Honek beste emakumeentzako eredu izatea dakar.

Izan daiteke; hala ere boxeo zerbait kolektiboa dela esatea gustatzen zait niri. Ringera ni igotzen naiz baina atzetik jende asko daukat. Jende horrengatik ez balitz ez nintzen helduko nagoen lekura. Ereduak edukitzea ona da, baina talde lana da benetan balio duena.



*"Guk ez badugu  
boxeoan egiten,  
inork ez du egingo",  
dio Violeta Gonzalezek.  
Bilboko San Ignazio  
auzoko kiroldegian  
entrenatu ohi du.*

### Gogorra da profesionala izatea?

Boxeoa ez da kirol erraza eta sakrifizio asko dakartza berarekin. Profesionaletan egoteak guztia bikoizten du (prestaketa fisikoa, entrenamenduak, janariaren kontrola...). Batzuetan zaila da presio horri guztiari aurre egitea. Konstantzia eta lasaitasuna dira nire ustez profesionaletan ondo lehiatzeko bi gakoak.

### Konpetizioak ere asko nekutzen du.

Lehiak dibertsioa bigarren maila batean

uzten du. Xurgatu egin zaitzake. Oso garrantzitsua da exijentzia altueneko momentuetan ere burua hotz mantentzea. Boxeoak ezin du guztia bereganatu. Lehiatzen ari zarenean oso zentratua zaude baina deskonektatzeko baliabideak garatzea beharrezkoa da, itoko ez bazara.

### Nola ikusten duzu egungo boxeoa?

Boxeoak azken hamarkadetan jasan duen marjinazioaren emaitzak pairatu ditugu duela gutxi arte. Boxeoak urte

asko pasa du zokoratuta. Pixkana argia ikusten ari gara. Duela hamar urte baina askoz hobeto gaude, baikorra naiz. Iku-si besterik ez dago Euskal Herrian egin diren azken borroketan bildu den jende andana. Boxea kalea berreskuratzeko bidean ikusten dut.

### Eta euskal boxeoa?

Asko ari da indartzen. Duela gutxi arte lau katu ginen boxeoan ari ginenak. Egun gimnasioak betetzen ari dira. Erreferente inportanteak sortu dira, heringoak dira Kerman Lejarraga edo Andoni Gago eliteko boxeolariak. Euskal boxeoa inoiz baino osasuntsuago dagoela iruditzen zait, gerra handia emango dugu etorkizunean.

### Zer esango zenioke boxeoan hastear da goen pertsonari?

Boxeoan bizitzan bezala oso garrantzitsuak dira etapak. Fase asko dituen kirola da. Boxeoan hasi behar duen pertsona batek etapa horiek guztiak gainditzeko prestutasuna behar luke. Oso garrantzitsua da hasieratik ulertzea boxeoa garapen prozesu graduala dela. Lasaitasuna ere ezinbestekoa da bideari gogoz ekiteko.

### Eta zure etorkizunaz zer esan diezagukezu?

Ireki zaizkidan aukerak aprobeztatzea da nire helburua. Niretzat hau guztia berria bada ere indarrez nago eta oso babestua sentitzen naiz. Ahal dudan titulu gehien eskuratu nahi dut. Badakit ez dela erreza baina horretan nabil eta hori lortzeko egingo dut lan.

### Geratzeko etorri zara, beraz.

Boxeoa niretzat jada ez da kirola bakarrik. Neskabox eta bidean egin ditudan lagunak ere badira boxeoa. Hone-taz guztiaz ahal dudan denbora gehien gozatzen saiatuko naiz. Bai, geratzeko etorri naiz. ■

BABESLEA: **BIZKAIKO FORU ALDUNDIA**



Eman hegoak euskarari

**Bizkaia**  
foru aldundia  
diputación foral  
[www.bizkaia.eus](http://www.bizkaia.eus)

## Lemkoak

# Europa Erdialdeko kurduak

Gaur egun, gehienetan Polonia herri etnikoki homogeneo gisa ikusten da. Egia da, hein handi batean. Halere, badira oraindik bere mugen barnean hainbat gutxiengo garrantzitsu: Lemko komunitatea da horietako bat. 1989an komunismoaren amaierak gutxiengo askoren harrotasun etnikoaren susperraldia ekarri zuen, baita irekitze giro berrian euren kultura berpizteko abagunea ere.



TESTUA ETA ARGAZKIA:

**JonMikel Intsausti**

@xanmixel

Lemkoen aberri historikoa, Lemkovyna, Karpatoetan egungo muga poloniar-eslovakiarreko bi aldeetan dago, zati bat ere Ukrainan delarik. Lurraldeak historia gatazkatsua izan du, XVIII. mendez geroztik, Polonia, Austria-Hungaria, Ukraina, II. Mundu Gerran Alemania eta Errusiako Inperioaren pean izan baita.

Lemkoak kultura, hizkuntza eta erlijioaren arabera, ekialdeko eslaviarra den talde rusiniar (ruteniar) korapilatsu baten parte dira. Polonian direnek lemko izena hartzen dute, Eslovakia-koek rusnak (rusiniar) ordea. Lemkoen kulturak ere antza du alboko Ukrainan rusiniar diren Boyko eta Hutsulen kulturekin. Denek antzekotasunak dituzte beste herri menditar eslaviarrekin, Polonia eta Eslovakiako Goralekin, adibidez. Erlijioari dagokionez, lemko gehienak ez dira Erromatar Eliza Katolikokoak, Ekialdeko Eliza Ortodoxo edo Bizantziar Eliza Katolikokoak baizik.

Euren hizkuntzaren jatorriari buruzko ikuspegi ezberdinak dira. Ikerlari batzuek ukrainera-dialekto bat dela defendatzen dute, eta badira ere talde linguistiko rusiniarraren tokiko aldea dela edo gainerakoetatik at berezko sistema linguistiko osoa osatzen duela uste dutenak.

Lemkerak batez ere ukraineraren eta ekialdeko eslavieraren ezaugarri fonologikoak ditu, baita ezaugarri bereiz-

garriak ere fonetikan, morfologian eta lexikoan. Errusierak eta ukrainerak erabiliko alfabeto zirilikoaren ez beste bertsio arinki ezberdina darabil. Bestalde, lemkerak kontaktuan izandako poloniera, eslovakiera, hungariera eta errumanieratik maileguak eta eragina jaso du eta mugakide izan dituen polonieraren dialektoetan ere eragin, bereziki artzaintzarekin eta esnearen prozesatzearekin lotutako terminologian.

### Poloniako biztanleriaren %30 izatetik %1 izatera

1947ra arte, ziur aski lemkoen gehien-goia elebakarra zen, soilik lemkeraz mintzo zen. Poloniarrekin izaniko kontaktuak azoketara eta gizonentzat soldadutzara mugatzen ziren. 1947an ere agintari poloniarrek Akcja Wisla (Vistula) Operazioan 35.000 lemko bortxaz deportatu zituzten Poloniako sartaldea eta iparraldera, II. Mundu Gerra amaitzean Errekuperatutako Lurraldeetara, maiz familia bana herri banatan bakar-tuz. Helburua polonieraz mintzo ez ziren (agintariak izendatu gisa) "ukrainarrak" asimilatzea zen. Era honetan, Poloniak lurraldean ziren gutxiengoak homogeneizatzearen ildo hartu zuen: II. Mundu Gerra aurretik Poloniako biztanleriaren %30 baziren, egun %1 baino ez dira. Gerra aurretik ere, sobietarrek beste 90.000 lemko Ukrainako eskual-

de urrunetara deportatu zituzten, eta XIX. mendean lagun ugarik Kanada eta AEBetara emigratu zuten, besteak beste erlijio arazoaren kausaz. Akcja Wislak Lemkovyna jendez hustu zuen. Bederatzi urte geroago, agintari poloniarrek lehen itzulerak baimentzen hasi ziren.

Gerrartean, eskolak lemkeraz eman baziren, 1947tik aurrera soilik polonieraz izan ziren. Azken urteotan, halere, berriz errekuperatu dira eta lemkeraz lau bat orduz astean ikas dezakete lemko eta poloniar jatorriko haurrek lemkoak bizi diren herrietako eskoletan. Egun, Polonian lempera hitzun gehienek tokiko familia-aldaera eta polonierara estandarra ezagutzen dituzte; Polonian 60.000 inguru lemko (horietatik 10.000 Lemkovynan) dela, eta hitzunak milaka batzuk direla uste da. Eslovakian 100.000 lagun, eta hitzunak herena omen dira.

1902koa da hizkuntzaren gramatika deskribatzaile bat. 1933an Lemkovyna ukrainatzearen arriskuez jabetuta, Metody Trochanovskiy eskoletan erabiltzeko lemkeraz idatzitako *Lehen Alfabetoa* eta *Lehen Irakurketa Liburua* idatzi zituen. 1938an gobernu poloniarrek debekatu zituen. Geroztik *Lemkera garai-kidearen gramatikaren deskribapena* eta *hiztegia* idatzi dira. Halere, literaturaren jarioa urria da, iraganean literatura aberatsa eta adierazpen poetikoagatik na-



*Ezkerrean, lemko gazteak Urretxuko jaietan haien folklorea ezagutarazten. Behean, duela 50-60 urte lemkoak ospakizun batean. Argazkia Klaudia Maslej-en bildumakoa da.*

dearekin. Soilik Eslovakia eta Poloniako aldaerak estandarizatu ziren. 2007an Hirugarren Kongresua egin zuten, eta eskualde-aldiera estandar horiek sortzearen ahaleginak bizkortzearen adierazpena egin. Oraindik ez dira lortu.

Lemko populazioan egindako galdeketa, euskaldunok sarritan geure buruari egindako galderak dira: posible da lemkeraz ez dakien inor lemkoztat hartzea?



barmena izan bazen ere. 2013an, *Printze Txikia* lemkerara itzuli zen.

1871n, lemkerak gainerako rusiniera aldaeretatik bereizteko adierazpena sinatu zuten lemkoek. Ostera rusiniera batzearren hainbat saio egin arren, ez da adostasunik lortu. 1992an, rusiniarrak bizi diren (Errumania izan ezik) Polonia, Eslovakia, Ukraina, Hungaria

eta Jugoslavia ohiko idazle, kazetari eta akademikoz osatutako talde adierazgarri bat Hizkuntza Rusiniarraren Lehen Kongresuan elkartu zen. Bertan, Suitzako erromantxe herriak egin bezala, euren aldaera orotarako eskualde-estandarrik bilatzeko erabakia hartu zuten, geroago, eskualde guztiei balio izango liekeen estandar batu bat sortzeko xe-

### Lemko izatearen kontzientzia

Akcja Wislaren deportazioek lemkoen aldi baterako desintegrazioa ekarri arren, bizkor berrantolatzeko gai izan ziren. Nahiz ez dakigun neurrian, lemkoak Poloniako populazioan partzialki asimilaturik izan, jasandako deportazioek lemko nazio-kontzientzia eragin handia izan zuten. Bestalde, poloniarrek lemkoen egindako arbuioak eta agintari poloniarrek hedatutako ukrainarren estereotipo negatiboek ere, poloniar baino lemko gisa identifikatzeko indarra eman zieten: egun lemko askok soilik lemko edota ukrainar identitatea onartzen dute.

Gaur egun maleruski, Polonian lemkerak gainbehera handia jasaten ari da hitzun kopuruari dagokionez, eta egoera diglosikoan poloniarak eragin handia du gazte eta haurren belaunaldian. XXI. mendean hasieratik aurrera, gainera, familian lemkeraren transmisioa etena ere gertatu da. Hizkuntzaren erabilera oro har familiarteko eta auzoko harremanetara mugatua da, urtero Lemkovynan eta Silesia Beherean antolatzen diren Vatra (menditarren guardia-su) jaietan elkartzerik duten arren.

Lemkoen izate gogorak euren bizi-rautea bermatu arren, ez dakigu etorkizunean izango duten bilakaera nolakoa izango den. ■

## ANALISIA

# Ikurrina betaurrekoetan



Andoni Egia Olaizola

@AndoniEgia

Fisika kuantikoak, fisikaren arloan egindako ekarpenez gain, subjektuaren eta objektuaren arteko egiturazko harremana utzi zuen agerian. Subjektuak objektua eraikitzen duela bistarazi, eta mundua ulertzeko erabiltzen zen gerturapen bakar eta absolutua zen metodo cartesiarra ezbaian jarri zuen.

Feminismoak aspaldi azaleratu zuen gure begiraden partzialtasuna; kontzienteki betaurreko moreak jantzi, eta munduari patriarkatuak sortzen dituen botere harremanetik begiratzea proposatu zigun. Egun, badakigu betaurreko morerik gabe, patriarkatuaren zentzu komunak ematen diola izena izanari, ez baitago begiralearen begietatik at existitzen den errealtaterik. Begiraleak eraikitzen du begiratzen duen hori. Arre edo so.

Kataluniako prozesu independentistak estatuko taula politikoa irauli du: Illusioa, gorrotoa, nahasmena eta lilura barreiatu ditu estatuko zein Europako alderdi eta eragile gehien artean, bereziki, arrazoi bat dela edo bestea dela, emantzipazioa helburu duten mugimendu politiko edo lurraldeetan.

Nahasmena nabarmena da estatuko ezker estatalista zein euskal subirautzazaleen artean, eta nago, nahasmen honek, 78ko erregimena eraisteko ireki zaigun aukera bertan behera utzi, eta erreazio zentralista demofobikoari ateak irekiko dizkiola, parez-pare.

Nahasmen honen iturburua bi esparru politiko hauek prozesuari begiratu eta ulertzeko erabiltzen dituzten betaurrekoetan dago, zehazki, betaurreko horien kristalek daukaten kolore gorri-hori edo berde-txuri-gorrietan, hau

da, subjektuak, objektua begiratzeko orduan daukan kokagune aprioristikoan. Batzuentzat –ezker espainiarzaleentzat– arazo dena, besteentzat –euskal subirautzazaleentzat– ezinbesteko baldintza da, eta badirudi biek ala biek muturren aurrean daukaten aukera galtzen ikusiko dutela, bakoitzaren “errealismo magikoak” liluraturik, eta burgesia katalana prozesuan egotearen arrazoiak arazotzat edo ezinbestekotzat ulerturik.

Azken egunotan askotan entzun da “errealismo magiko” kontzeptua, batez ere Katalunian aldarrikatzen duten *revolució dels somriures*-aren inguruan aritzeko, eta batez ere, hain zabaldu ta dagoen uste horren ezinezkotasuna azpimarratzeko. Euskal Herrian ere errealismo magikoa oso hedatua da: goela dirudi, Katalunian gertatzen ari den independentzia prozesua ulertu eta bere alde egiteko garaian. Badakigu, jatzokoaren diagnostikoaren zehaztasuna dela ekiteko orduan gehien eragiten duen aldagaia. Eta nago, orain arte diagnostikoa egiterakoan elementu bakarra erabili dela, gure egitura politikoan nagusi dena: naziotasuna.

Galdetu al du inork zein den arrazoia 2002an “Independentzia kontzeptu zaharkitua eta oxidatua da” esan eta Espainiako monarkia defendatzen zuen Artur Masek eta bere alderdiak independentziaren bandera hartu, eta prozesu honen buruan jartzeko? Galdetu al du inork zer pasa zen 10.000 lagunek parte hartu zuten 2011ko Diadaren, eta milioi bat eta erdi lagunek parte hartu zuten 2012ko Diadaren artean? Galdetu al du inork zer dela eta egon zen prozesua piktara joatear CUPEk ez zuelako Artur

Más “President” izendatu nahi? Eta zer dela eta egon zen prozesua piktara joatear CUPEk ez zituelako inora ez zihoa zen aurrekontuak onartu nahi? Axola al du? Axola al zaigu? Galdetuko al diegu?

Euskal errealismo magikoa alde batera utzi, ikurrinaren koloretako betaurrekoak erantzi eta independentzia prozesu honen erraien oinarri materialak identifikatu eta aztertzeke garaia da; umiltasunez, ulertzen ez dugula aitortu eta galdetzen hasteko momentua da honako hau. Bihar baino, gaur hobe.

CUPEko militante Josep Manel Busqueta eta Pau Llonchek *Crític* egunkari digitalean argitaratutako hiru artikuluetan azaldu bezala, ekonomia kapitalistaren egiturazko krisi multidimentsional batean aurkitzen gara. Beren hitzetan, gure esparru geografikoan bederen, alternatiba liberal edo sozialdemokraten eskutik irteerarik ez duen krisi kapitalista da.

Azken urteotan krisi ekonomiko honen ondorio politikoak parez-pare agertu zaizkigu, bai Europan zein AEBetan: ordura arteko hitzarmen sozialaren deuseztea, austeritate politiken bidez gertatu den pobrezia-heriotza izugarria eta estatuen subirautzaren desagerpena eraginez –Grezia da erakuslerik argiena–. Honen guztiaren ondorio argiak ditugu ultraeskuinaren igoera beldurgarria, Trump, Le Pen, Brexit, Poloniako gobernu arrazista eta abar. Okerrena da krisiari langile klaseak emandako erantzuna izan dela hori guztia.

Katalunian ere krisi ekonomikoaren inpaktua oso latza izan zen –eta da–, hainbat faktoreren ondorioz: bere egitura produktibo desindustrializatua, ko-



kapen geografiko periferikoa, estatu espainiarrean duen enkaje prekariora eta bertako agintariek ezarritako politika neoliberal eta austerizidak. Azpimarratzekoa da CiUren gobernuak 2010eko hauteskundeak irabazi ondoren, krisiari erantzuteko hartu zituen erabakien norabidea. Murrizketak egin zituen ongizate estatuaren zutoin nagusietan, hala nola, hezkuntzan, osasunean, funtzionarioen soldatetan, eta hau guztia gainera, alderdiaren ustelkeria argitara ematen ari zen bitartean: Palau kasua eta %3-aren afera besteak beste.

Katalunia eta bereziki Bartzelona eza gutzen duen edonorentzat ez da harri-garria izango horrelako murrizketek eragin zuten borroka zikloaren tamaina irudikatzea, aipatutako sektoreetako langileek piztutako borrokei –langile publikoen grebak, medikuen desobediencia ekintzak kontsultak itxarongeletan egiten, hezkuntzako langileen greba eta protesta gogorak– M15 mugimendua gehitu zitzaiolearik. Maiatzaren 15eko mugimendua ere ezinbesteko mugarrria da egungo prozesua ulertzeko: plazetan hilabete luze eutsi, indarrak metatu, eta erregimen politiko-ekonomikoari hortzak erakutsi zizkion, Kataluniako kasuan, *aturem el parlament* ekintza masibo zein erradikalean egikaritzuz, murrizketa basatiak onartu behar zituen parlamentuko saioa blokeatuz eta Mas helikopteroz sartzera behartuz. Honek guztiak, elite ekonomikoen mesedetan kudeatzen ari zen krisi ekonomikoa, boteredunen krisi politiko bihurtu zuen, eta Kataluniako harreman sozial kapitalisten birsortze dinamika egonkorra ezbaian jarri zuen. Dominazio harre-

manen bizirauteak behar duen legitimitate politikoa bukatu zen. Diskurtso, promesa eta marko berriak ezinbestekoak bihurtu ziren ordura arteko botere harremanek jarrai zezaten. Dominazio nazionalari aurre egiteak eragingo lukeen espainiarren kontrako talkaren, eta krisi kapitalistak eragiten duen klaseen arteko talkaren artean Kataluniako botere egiturek, politikoez batez ere, hautua egin zuten: Independentzia. Edo, independentzia prozesua. Prozesua batez ere, *Processisme* bezala ezagutu dena. Honek ahalbidetu dio PDeCATi –eta Masi JxSI inposatuz– jendardean ez zuten ordezkariak eta indarra, erakundeetan mantentzea. Orain ulertzen al da zer pasa zen 2011ko eta 2012ko Diaden artean? Orain ulertzen al da zergatik ez zuten CUPEk Mas presidente izendatu? Orain ulertzen al da zergatik ez zituen CUPEk lehenengo aukeran aurrekontuak onartu? Orain ulertzen al da CUPEk prozesuari egindako ekarpena? Espainiar ezkerzaleek ikusi nahi ez badute ere, eta euskal subirautzazaleek arrazoi marjinaltzat hartzen badute ere, duela 15 urte independentziazaletasuna %10aren bueltan zegoen herrialde honen independentzia prozesua hertsiki dago lotua krisi kapitalistak eragin dituen kontraesanekin, baita beroni eskaintzen zaizkion irtenbideekin ere. Eta ez balizko etorkizun batean, baizik eta hemen eta orain, prozesuaren alde burutu diren bi greba orokorre (eta bide mozketek...), CNTk, CGTk eta CDRek hartu duten protagonismoak erakusten duten moduan. Edonola ere, azken hila-beteotan agertu den espainiarzaletasun berriaren klase konposizioak erakusten

duen moduan, JxSí-ren bidez PDeCATek mantendu duen lidergoak galga jarri dio independentismoaren hazkundeari, identitate espainiarra duen langileria-zen zati handi bat kanpoan geldiarazi, eta independentismoak %48a gainditzeko duen zailtasuna egiturazkoa bihurtu baitu, antzina PSUCek lideratzen zuen Bartzelonako gerriko gorria, C's-en gerriko laranjarekin aldatuz.

Hau guztia gurera ekarriz, atera ditzagun ikasgaiak eta aprobetxa dezagun muturren aurrean agertu zaigun aukera. Utz diezaiogun elkartasun keinuak egiteari, eta ireki diezaiogun bigarren fronte bat erregimenari. Antagonismo politikoa egikaritzeko garaia iritsi zaigu, independentzia, “adierazle huts”en abstrakzioetik–gaztelaraz “*significante vacío*”–, errealitate materialetan konkretatzeko beharra daukagu. Demokrazian eta naziotasunean oinarritzen diren diskurtsoak garatu, sakondu eta gainditu ditzagun eta has gaitezen eguneroan kolpatzen gaituzten dominazioei ematen dizkiegun erantzun praktikoak, subirautza esparru bihurtzen, askegune materialak eraikitzen. Subirautzaren ideia jendarte gatasketan kristalizatu, eta gehiengo sozialaren behar eta desioak hemen eta orain egi bihurtzen.

David Fernándezek dioen moduan, egun eta hemen ez dago Demokrazia-tik Askatasunera dagoen bidea egite-rik, has gaitezen bada, Askatasunetik Demokrazia dagoen bidea arakatzen. Kataluniak erakutsi digun bezala, auzi nazionala eta soziala ez baitira txanpon beraren bi aurpegi, txanpon bakar baten, daukagun txanpon bakarraren, aurpegi bera baizik. ■



Aran Llivina eta Iru Moner:

# “ERREPUBLIKA INDARTZEKO GAKOA DA SEKTORE EZ SOBERANISTAK BATZEA”

Iru Moner eta Aran Llivina Bartzelonako Vallcarca auzoko Heura Negra asanblada libertarioko kideak dira. Entzun gako sozialetan antolatutako herritarrei, Katalunian gertatzen ari dena ulertzeko ezinbestekoa da-eta.



Estitxu Eizagirre Kerejeta

@eeizagirre

ARGAZKIA: VICTOR SERRI

**Estatu bat sortzeko borrokak eragingo du kontraesanik Katalunian hain indartsu den mundu libertarioan. Nola uztartu dituzue bi borrokak?**

**Iru Moner:** 2014-2015ean herrieta-ko galdeketa hasi zirenean, hitzaldiak ematen aritu ginen mugimendu libertariotik datorren Embat erakundeko kideok. Guk autodeterminazio eskubidea babesten dugu, CNT-k eta CGT-k egiten duten bezala. Baina ezin dugu Podemosek bezala jokatu, kontzeptu abstraktuez mintzatu bai baina praktikan jartzera-koan ihes eginez. Autodeterminazio eskubidearen alde bagaude, erreferendum bat demokrazia zuzen ekintza bat da. Horregatik egin genuen erreferendumen alde, esaten dugunarekin kontsekuente izatea bilatzen baitugu.

Baina gure mezua ez da hain nazionalista. Estatuarekin hausteak irekitzen duen aukeren markoa da guretzat gako: 1939tik datorren 78ko Erregimenean hain lotuta dagoen boterea desegituratzeak irekitzen dituen aukerak baliatzea. Izan ere, iraultza guztiak beste iraultza batzuen aurrekarietatik datoz; boterea desegonkortu delako, botere egiturek dar-dar egin dutelako.

**Aran Llivina:** Gehitu nahi nuke gaizki sentitu nintzela, asanblada libertarioan

berandu erreakzionatu genuelako. Ni independentista naiz, eta asanblada libertarioan eztabaida atera nahi izan nuen erreferenduma baino hiru-lau hilabete lehenago, eta ez zen espaziorik egon. Asanbladako jendeak ez zion sinisgarritasunik ematen gertatzen ari zenari eta gainera kontraesan asko sortzen zituen, beraz, debateari izkin egin zitzaion, gaia otorduetako komentarioetara mugatuz. Ondoren, erreferendumen aurreko astean, korrika eta presaka asanblada libertarioko jendearen barne kontraesanak debatitzen aritu behar izanak amorrarazi ninduen.

Egon diren mobilizazio bakoitzean kontraesanak azaleratu dira. Esaterako, auzoko CDRan eztabaida atera zuen jende libertarioak, urriaren 10ean Parlameta babestera joateak sortzen zizkien kontraesanez, denok baititugu 2011ko ekainaren 15ean Parlamentaren erai-kina inguratu izanagatik auzipetutako lagunak. Eta aizu, CDRa ez da autolaguntza talde bat! CDRak eta mobilizazioak, ikuspegi libertariotik, bakoitza iristen dena aportatzeko dira. Ez baduzu argi eta kontraesan asko ekartzen badizkizu, geratu etxean, ez da ezer gertatzen. Norberak ikusi behar du noraino iristeko prest dagoen eta ez hortik aurrera joan.

**Eremu libertarioan jende asko geratu da independentzia prozesutik kanpo?**

**I. Moner:** 2014-2015ean hau aukera bat dela azalduz hitzaldiak emateari ekin genionean, gaur baino desenkontu handiagoa zegoen sektore libertarioan. Guk M15-arekin parekatzen genuen egoera, orduan ere gauza bera gertatu zitzaigulako: mugimendu libertarioaren erdia buru-belarri sartu ginen, eta beste erdia begira geratu zen, “mugimendu *ciudadanista* bat da” esanaz. Gure hitzaldietan mezu hau zabaltzen genuen: Bilatzen duguna gizartearen sakoneko aldaketa bada, horrelako gizarte mugimendu bat dagoenean ezin gara ertzean geratu, gutxiago arrazoi ideologikoen-gatik. Bestela, “saloiko anarkista”-ren erosotasunean erortzeko arriskua dugu. Inoiz ez da gertatuko iraultzarik zure gustura egina izango denik, langile guztiak super koherenteak, matxistak izan gabe, denek helburu bera izanik... iraultza denak dira kontraesankorrak, zikinak, eskuak lohitu behar dituzu, gustuko ez dituzun erabakiak hartu. Sektore anarkista sozialenak eta antolatuenak, esaterako Embat edo auzoko asanblada batzuk, uste dut gai izan garela mugimendu libertarioko zati handi bat independentzia prozesura bultzatzeko. Bai-



*Aran Llivina eta Iru Moner  
Bartzelonako Vallcarca auzoan.*

na jende asko dago, eta errespetatzen dut, uste duena kanpo egon behar duela, ez duelako beste estatu bat sortzeko borrokatuko.

**Herritarren autoantolaketari ematen diotzue balioa. Lanketa honetatik etorkizunerako %10 geratzen bada, ez da gutxi!**

**I. Moner:** Irailaren 20an, Guardia Zibila Ekonomia Kontseilaritzan eta CUPen egoitzan sartu zenean eman zen aldaketa, jendea lanera lotu zen. Aurretik, *Empapelem* ekintzetara joan nintzen [erreferendumean baietza bozkatzeko kanpainaren afixa “debekatuak” itsasteko herritarren ekimena], nire burua “kaixo, Iru naiz, auzo elkarteko kidea” aurkeztu nuen, eta Vallcarcako CD Ra jarri genuen martxan, autoantolaketarako aukera ikusten genuelako. Erreferendumaren aurreko egunetan eman zen autoantolaketa agertokia, ondoren

urriaren 3ko greba orokorrarekin itxiera biribila izan zuena, inork ez zituen irudikatzen aurrez. Gure aukerak gainditu zituzten. Erreferenduma baino bi egun lehenago eskoletan jende erabat ezberdina ados jarri zen norabidean: auzotarren elkarteak, eskoletako gurasoen elkarteak, eskoletako zuzendaritzak, irakaskuntzako sindikatuak, mugimendu politiko anitzak... ados jarri ziren eskolak okupatu behar zirela, zaintza guneak egon behar zirela, janaria egon behar zela, medikuek artatzeko guneak izan behar zituztela... Hau guztia herritarren antolaketa izan zen eta jende askori iltzatuta geratu zaio: frogatu dugu guztiok nahi dugunean herritarren antolaketak edozer dezakeela.

**Zein da egungo zuen irakurketa?**

**I. Moner:** Kaleak irauli zuela egoera, ez zegoela aurreikusia benetan erreferenduma egin egingo zenik. Praktikan posible egin genuen herri antolaketa indartsuari esker, eta hori ez zuen espero ezta Kataluniako Gobernuak berak ere, ezta mugimendu soberanistak ere. Hori ari da aitortzen ERC orain egiten ari den autokritikarekin. Ekintza sinbolikoagoak zituzten aurrekusiak, bozka-paperari eustea mossoen eta polizia nazionalen aurrean. Baina praktikan erreferenduma hainbesteko arrakastarekin egin izanak ekarri du *processa* abiadura bizian aurreragoko puntu batera eramatea. Herri mugimendua izan zen balazta, egoera gainditu zuena.

Gaur egun jende guztia dago adi, abenduaren 21eko hauteskundeetan zer gertatuko. Erreferendumaren ondoren ezustean harrapatu bagintuen,

A21erako hilabete dugu prestatuago egoteko. Hauteskundeetatik ateratzen den eszenategiaren arabera, ikusiko dugu nola jokatu.

Baina Gobernuan, ERCtik PDeCAT-era, independentziaren prozesuan zalantza-ti ari dira, atzera egiten ari ez badira. Eta Espainiako Estatua paparra gehi-ago ateratzen ari da. Madrilgo ustelkeria kasu denak estaltzen ari da Kataluniako gatazkarekin.

### Mobilizazio indartsuak burutu dituzuen herritarrak nola zaudete?

**I. Moner:** Geldialdian. Etengabe mobilizatzeko nekea dakar. Azken manifestazioa oso jendetsua izan zen baina jendea nekatuta dago eta bilduago egoteko garaia da. Baina asanbladetara jendeak etortzen jarraitzen du. Berrantolatzen ari gara, elkar hobeto ezagutzen, era horizontalean antolatzen ikasten, politika eta uneko analisisen klase praktikoak egiten ari gara oso denbora azkarrean eta gaur arte politikan ari izan ez den jendearekin... itzela da. A21ean dena emango dugu, sudurrean pintza jarrita joan behar badugu ere, 155. artikulua abortatzeko bozka eta hitzen bidez. Baina ondoren hasiko da politena. Orain indarrak biltzeko garaia da, gure burua antolatzea, erresistentzia kutzak betetzeko, prestatzekoa...

### Mugimendu libertariotik nola daramazue abenduaren 21eko hauteskundearen gaia?

**I. Moner:** Ezker Abertzalea ilegalizatzeari utzi ziotenean bezala bizi dugu egoera, jende asko joan zen bozkatzera, orduan ere libertarioen mugimendutik proiektu politiko horretan asko sinesten ez bazen ere. Gure bozka gehiago da 155. artikulua aurkakoa, inongo proiektu politikoren aldekoa baino. Mundu libertariotik inork ez du aukera politikoez ahoa zabaltzen, baina denek diote bozka ematera joango direla. Eta CDRetan ere ez da hitz egiten nori bozka eman, hitz egiten da bozka ematera joan egin beharko dela, herritarrei dei egingo zaiela 155. artikulua garaitzera joateko.

### Errepresioari aurre egitera bideratu behar dituzue indarrak?

**I. Moner:** Errepresioari aurre egiteko prestatzen ari gara. Poliziarengandik oso hurbileko iturriak dituen *Crónica Global* medioa –nahiz eta ez den fida-garria– etor litekeen eraso dekodifi-

katzen ari da: azaroaren 8ko greban garraioa moztu zutenak erakunde kriminal bat zirela dio, herri gerrilaren taktika zela hura. Nonbait, pentsa daiteke CDR sareaz ari dela eta dio Auzientzia Nazionalak eraman behar duela auzi hori... Euskal Herrian 90eko hamarkadan eta 2000ko hasieran erabiltzen zuten hizkera bera erabiltzen ari dira. Greban garraioa mozteagatik etor da-kizkigukeen isunei aurre egiteko dirua biltzen ari gara eta jendea prestatzen. Hala ere, gure borrokak gehiago du proposamen izaera, ez jarrera defentsiboa.

#### » IRU MONER:

“A21ean dena emango dugu, sudurrean pintza jarrita joan behar badugu ere”

#### » ARAN LLIVINA:

“Prozesu konstituziogilea oinarria zabaltzeko modua ere bada, jendeak ikus dezala tresna erabilgarria dela bere bizimodua aldatzeko”

### Prozesu konstituziogileari ekiteko garaia ere bada beraz?

**I. Moner:** CDRetatik prestatzen ari gara prozesu konstituziogilea eta dinamika handiena duten CDRek badute bere Prozesu Konstituziogile komisioa.

Oinarritik, gizartetik, herri boteretik, artikulatu behar dira oinarritzko puntuak. Hainbat aldarrikapen sozial bildu behar ditugu, eta bultzatzea beharko genuke alderdi politikoek bere egin ditzaten oinarri hauek. CDRak izango lirake eztatanda oinarrietara, auzo eta herrietara eramateko guneak; herritarrak, soberanistak ez direnak barne, inplikaturatu senti daitezten, beren bizi baldintzak ho-

betzeko soilik bada ere. Errepublika hau indartzeko garaia da eta horretarako garaia da soberanistak ez diren sektoreak batzea.

### Badira herritarren ordezkartza eta erakunde gehiago ere. CDRak dira prozesu konstituziogilea lantzeko gune egokienak?

**A. Llivina:** Nire ustez bai. Herritarrak antolatuta daude ANC, Òmnium, CDR eta alderdi politikoetan. Nik ez dakit zein den prozesu konstituziogilea antolatzeko proposamen instituzionala. Baina Katalunia osoko CDRen koordinadoran mahai gainean dagoen gaia da. Eta gainera oinarria zabaltzeko modua ere bada, jendeak ikus dezala tresna erabilgarria dela bere bizimodua aldatzeko, bere beharrei erantzuteko.

**I. Moner:** Goberna-ANC-Òmnium hirukotik denbora asko daramate prozesu konstituziogilea lantzen, nahiz eta bizi ditugun baldintzen ondorioz, dena diskrezio handiz daramaten. Badakigu planteamendu batzuk nahiko aurreratu dituztela. Independentziaren aldeko eragile guztiok independentziaren prozesuan batera goaz, baina posible da herri proposamenean ez hain ados egotea. Eta hori ez da txarra. ANC-Goberna-Òmnium hirukoari egin diezaiokegun kritika da, guk gurea lantzen badugu egozten digutela batasuna hausten ari garela, baina eurek euren lantzen dutenean ez dela ezer gertatzen. Eurak sozial-demokratak dira eta guk beste proposamen bat dugu. Gu ez gara ari hezurak hausten, ondoren Kataluniako Errepublika izan dadin Frantziako Errepublika edo Espainiako Estatua bezalakoxea.

### Alderdiak prest ikusten dituzue planteamendu honetan sartzeko eta herritarrek landutako oinarriak bere egiteko?

**A. Llivina:** CUP bai. Espero dut erreminta erabilgarria izango dela une erabakiorra iristen denean.

**I. Moner:** Hori gure esku dago. Argumentario trinkoa landu behar dugu, hutsunerik gabekoa, proposamen errealistak egin behar ditugu, jakin behar dugu kaleko hizkuntzan azaltzen, eta lortu behar dugu prozesu hau guztia aurrera ateratzen ari diren alderdiek (ERC eta garai bateko CiU) ez ateak ixtea, zeren horrela bada, aurrez aurre aritzera pasa beharko baitugu. ■

# AMERIKA “DESKUBRITZEKO” ASMORIK EZ



Nagore Irazustabarrena  
Uranga

@irazustabarrena

Norvegia, 986. Bjarni Herjólfsson esplotratzaile bikingoa Islandiara abiatu zen negua amaitu zenean, han gurasoekin bat egiteko. Eyrar-en lehorreratu zenean jakin zuen gurasoek etxaldea saldu zutela eta Erik Gorriarekin batera irla utzia zutela, Groenlandiara bizitzera joateko. Orduan Bjarni ere hara abiatu zen, mendebaldera, bide zehatzik jakin gabe. Horixe da behintzat groenlandiarren sagak dioena. Saga hori Erik Gorriak hasitako Groenlandiako kolonizazioaren kontakizuna da eta, hain zuzen, Bjarniren aita Herjulf Bárðsson izan zen lurralde haiekako lehen kolonoetako bat.

Groenlandiara abiatu eta hiru egunera haizea iparraldera aldatu eta laino itxia sartu zen; ontzia jitoan ibili zen hainbat egunez. Eguraldia argitu eta eskifaiak kostaldea begiztatu zuen, baina Bjarniren ustez muino txikiz osatutako erliebe basotsu leun hori ezin zen Groenlandia izan. Lehorreratu gabe, iparraldera jo zuten berak eta bere marinelek.

Handik bi egunera berriro ere lehorra ikusi zuten. Baina horrek ere ez zeukan Groenlandiaren antzik, Groenlandian egundoko glaziarrak zeudela esan baitzioten. Kostaldera hurbildu eta han ez zegoen glaziarririk, zuhaitzez estalitako lautadak baizik. Haizea baretu zen eta eskifaiak pentsatu zuen une egokia zela lehorreratzeko, eta urez nahiz egurrez hornitzeko. Baina Bjarnik ezetz, ez zu-



tela ezereen beharrik eta aurrera egingo zutela.

Hiru egunez hego-mendebaldeko haizeak bultzatu zituen eta, hirugarrenez, lur idorra azaldu zitzaizen zerumugan. Lurralde menditsua zen, eta glaziar bat ere ikus zitekeen ontzitik. Kosta ertetik ibili ziren uharte bat zela ikusi zuten arte. Baina hura ere ez omen zen Groenlandia. Aldeko haizea aprobetxatuz, itsas zabalera jo zuten berriro.

Lau egun eta ekaitz gogor bat pasa ziren, laugarrenez lehorra ikusi zuten arte. Eta azkenean Bjarnik lehorreratzeko agindua eman zuen, eskifaiakideen pozerako. Lurmutur estu bat aukeratu zuten horretarako eta, ezustean, Bjarnik hantxe topatu zituen gurasoak. Bertan geratu zen, aita hil artean.

Baina bere bidaian ikusitako –eta zapaldu gabeko– lurren berri berehala za-

*Drakkar motako ontzia, XI. mendeko Vayeuxeko tapizean. Mende bat lehenago, Bjarni Herjólfsson horrelako ontzi batean abiatu zen Groenlandiara.*

baldu zen bikingoen lurraldean. Erik Gorriaren seme Leif Eriksonek Bjarniren drakkarra erosi omen zuen eta 35 lagun bilduta hark egindako bidea berriro egin zuen. Adituen esanetan, Vinland izeneko kolonia Eriksonek sortu zuen Ternuan eta horren lekuko da L’Anse aux Meadows aztarnategi arkeologikoa.

Bjarniren bidaiaren frogak fisikorik ez dago, ordea, eta zaila da esatea sagaren kontakizunean zer den egia. Baina Manitobako Unibertsitateko (Kanada) T. J. Oleson historialariaren hitzetan, “argudio sendoak ditugu Bjarnik ikusitako lurraldeak Ternua, Labrador eta Baffin uhartea zirela pentsatzeko”. ■



MOMA ARCHIVES

## 88 urtetako erakusketak eskura

New Yorkeko Arte Modernoaren Museoa 1929ko azaroaren 7an zabaldu zuten, Wall Streeteko kraxa eta bederatzik egunera. Orduz geroztik 3.743 erakusketa egin dituzte, egun zabalik dauden bederatzik erakusketa eta instalazioak barne, eta MoMaren webgunean guztiak daude bilduta, *Exhibition history*

atalean. Adibidez, inaugurazio-erakusketan Cézanne, Gauguin, Seurat eta Van Gogh margolari post-inpresionista ezagunen lanak bildu zituzten hilabetez. Webgunean, erakusketaren aurkezpena, 23 argazki –horietako bat, ezkerrean– eta 156 orrialdeko katalogoa daude guztion eskura. ■

# Udazkeneko pagotxa



**Jakoba Errekondo**  
jakoba@bizibaratzea.eus

Ez noa, ez, pagotxaz (*Trifolium incarnatum*) hitz egitera. Bere lorea bezala gorri jartzen diren beste batzuez bai, ordea: hostoez. Udazkenak dakartzan klimaren eta argitasunaren aldaketekin, negurako antolatzen du bere burua landareak. Asko, hostajea bota, eta soildu egiten da.

Hostajea askatu aurretik, hostoetan dauden osagai baliotsuenak hustu eta jasoko ditu. Tarte horretan, kolorez aldatuko dira, bakoitza berera. Gero, agur hosto maitea, izan zaitetz orbel on!

Hostoa orbeltzen denean, osagai onak kenduak izanagatik, altxor ederra da, udazkeneko urrea! Azpigarri ederra da, bai aziendarentzat, baita landareentzat ere. Orbela den tokian ez da goserik!

Nola kendu etekinik onena orbelari? Orbela materia organiko garbia da, eta erabilera ugari du.

Orbela biltzerakoan hosto guztiak ez dira berdinak. Badira egokiak ez direnak, batez ere jariakin kaltegarriak ditzutenak: intxaur beltza (*Juglans nigra*), eukaliptoia (*Eucalyptus spp.*), gerezi-erama (*Prunus laurocerasus*)... Errepideetako hostoekin kontuz, motorren gai kaltegarriak izan ditzakete. Belaze batean bildu behar baldin badira, bela-



Orbela materia organiko garbia da, eta erabilera ugari du.

LYNN GREYLING

rra mozteko makinak erabil daitezke: hostoak bildu ahala txiki-txiki egingo ditu, gero errazago ustelduko direlarik. Hostoekin orbel-meta edo orbel-mor-doa osatu behar da. Ondo usteldu eta luartzeko pare bat urte beharko duenez, tokia tentuz aukeratu, gerora enbarazu egin ez dezan. Hesola batzuk sartu eta oilategi sarearekin edo tankerakoren batekin kaiola bat egitea da onena. Airea hartzeak ontzeari lagunduko dio. Hosto

gogorak eta soiltzen ez diren landareenak nekezago usteltzen direnez, luar-pilan edo simaur-pilan nahasi, beroak errazago desegino ditu.

Urtebeteko orbel erdi ustela azpietarako erabili, bi-hiru hatz lodi zabalduz: jakiak eman, belarrei ernaltzea galarazi eta hezetasunari utsiko dio. Ondutakoa, ongarrri gisa zuzenean edo ontzietakoa lur nahasketa egiteko. Udazkeneko pagotxa. ■



Bertako eta garaiko kalitatezko produktuak eskuratzeko zatoz Beasaingo azokara





# Oiartzungo hazi barietateak aztertzen



**Garazi Zabaleta**

@tirikitran

ARGAZKIA: JOSE MARI GUTIERREZ

Oiartzungo hazi barietateak eta horiek bertako gastronomiarekin duten lotura aztertzen aritu da Eneko del Amo Barzelonako Unibertsitate Autonomoko ikertzailea. *Dinamizazio Agroekologikoa* graduondokoa egin du azterketa. “Lan honek bi hanka ditu: bata jada egina dagoen ikerketa da, eta bestea orain Oiartzungo Erika kooperatibarekin martxan jarri nahi dugun ekintza”. Ikerketa-ekintza metodologia du lan teoriko-praktiko horrek, aztertutakoa kaxoian gordeta gelditu beharrean errealitatean eragitea du asmo.

## Hazien truke sarea, pixkanaka zahartzen

200 urte inguruko antzinatasuneko hiru arto, hainbat babarrun barietate eta bertako arbi haziak topatu ditu Del Amok Oiartzungo baserrietan egindako hamar elkarrizketetan. Adineko jendearen artean hazien hartu-eman handia dagoela kontatu digu, eta gehienek, gainera, ez dute hazi bakarria partekatzen, ia beti hazi barietate ezberdinak elkarbanatzen dituzte. Arto eta babarrunak dira han-hemen gehien topatu dituenak.

Hazien sareak denborarekin ahultzen doazela azaldu digu ikerketaren egileak. “50 urtetik beherakoen artean zirkuitu horiek apaltzen doaz. Egon badaude trukeak, baina gehienbat baserri giroari edo landa bizitzari lotuagoak dauden gazteen artean”, dio. Aziendak mantentzen dituztenek, adibidez, hazi barietateak kontserbatzeko eta trukatzeko ohitura handiagoa dutela azaldu digu.

## Baratztea “lehenago bizimoduaren” gotorleku

Agroekologiaren barruan gai asko uki zitezkeela jakitun, baratzeari lotutakoak zergatik lehenetsi dituen kontatu digu Del Amok: “Gure lurraldeak jasan dituen paisaia aldaketa guztien artean, nolabait bizirik mantendu diren ‘irlatxo txikiak’ dira baratzteak. Abereak desgertzen doaz, basoak erabat aldatu dira baso-politiken ondorioz... baratzteak ere transformatzen joan direla nabarmena da, baina nolabait jendearen ondoan mantendu dira gaur arte”. Aldaketak aldaketa, lehenago bizimoduaren gotorleku bezala uler daitezke baratzteak: “Barietate tradizionalen eta horien gaineko ezagutzaren gordailu biokulturalak dira”. Landa inguruko herri txikietan ere hiriko dinamika asko gailentzen diren garaiotan, lurrarekin eta lehenago bizitzarekin lotura egiten diguten zubiak dira. ■

[www.bizibaratzea.eus](http://www.bizibaratzea.eus)

## JAKOBA ERREKONDOREN HITZALDIAK

### Azaroak 23: Deba

18:30etan Hazitik Ekodendan, *Landareak Lantzen* aurkezpena eta kontsultategia.

### Azaroak 28: Idiazabal

19:00etan Udaletxeko Aretoan *Landareak Lantzen* aurkezpena eta kontsultategia.

### Azaroak 30: Berrobi

19:00etan *Landareak Lantzen* gida-liburuaren aurkezpena.

### Abenduak 1: Bermeo

19:00etan *Landareak Lantzen* gida-liburuaren aurkezpena.

### Abenduak 2: Beasain

Azokan *Landareak Lantzen* gida-liburuaren aurkezpena.

### Abenduak 6-10: Durango

*Landareak Lantzen* gida-liburuaren aurkezpena eta kontsultategia.

### Abenduak 12: Segura

19:00etan Kultur Etxean *Landareak Lantzen* gida-liburuaren aurkezpena.

## Bizi Baratzea buletina jasotzeko, eman izena

Zure e-postan jasoko dituzu azken artikulua, galdera-erantzunak, agendako ekintzak, hitzak, esaerak, argazkiak... Euskal Herri osoko edukiak biltzen dituen landareei buruzko buletin bakarra jasotzeko, bidali zure e-posta helbidea hona: [bizibaratzea@bizibaratzea.eus](mailto:bizibaratzea@bizibaratzea.eus)

ZURE HERRIKO EKINTZEN BERRI EMAN

[edukia@bizibaratzea.eus](mailto:edukia@bizibaratzea.eus) helbidera idatzi edo [www.bizibaratzea.eus](http://www.bizibaratzea.eus) webgunean bertan, oso erraz.

AGENDA OSOA NOIZNAHI IKUSTEKO

[www.bizibaratzea.eus](http://www.bizibaratzea.eus)

GURE GAIAK DIRA GURE BALIOAK | PARTE HARTU ETA IRABAZI SARI HAUETAKO BAT




Aste honetako nabarmendua

**"TXINGUDI" ARGAZKI LIBURUA**

**4**

## Begien gozamen iturri

Alain Mirandak liburu honen bidez Txingudi badiaren edertasunari egiten dio gorazarre. Harri, abere nahiz landareen edertasuna da nagusi bertan, urtaro urtaro. Itsaso zurrunbilotsuaren argazkiak eta Bidaso ertzeko hirietakoak dira argazki ibiladi honen osagarriak. Itsasoaren eta mendien artean, denboraz at izatearen sententzia du eskaintzen. Alain Miranda Zokoan sortu zen eta ospitale lanetan aritu ostean, argazkigintzak harrapatu du orain. Argazki panoramikoetatik xehetasun bitxiaraino eskaintzen dizkigu.



Eragile hau hobeto ezagutzeko:



**ELKAR**

Elkar argitaletxeak Ondarea sailean atera du liburu.

#paisaiakulturala  
#argazkilaritza  
#ingurumena  
#kultura

### Azaroko sariak

1



**ARGIAren**  
**2018ko egutegia**  
2 ale

2




**Korrontzi dantzan CD, DVD eta**  
**liburuxka**  
2 ale

3



**Mugarik Gaberen Euskal Herriko**  
**kolektibotasunean eraikiz**  
2 liburu

4



**Alain Mirandaren Txingudi**  
**argazki liburu**  
2 ale

Parte hartzeko: ☎ 943 371 545 | gunea@argia.eus | www.argia.eus/gunea

Eragilea bazara, zabalkunderako materiala baduzu eta zure lana ezagutarazi nahi izanez gero, jar zaitez gurekin harremanetan.

# Euskal Herrian euskaraz bizi al gaitzezke?



Itsaso Zubiria Etxeberria  
@itsasozubiria

Zer diozu zuk, irakurle; bizi al gaitzezke gure zazpi lurraldeetan euskaraz? Zein da euskararen ulermen mailaren inguruan zure buruan irudikatuturik duzun mapa? Erreal da? Ala zuk uste duzunak baino gehiagok/gutxiagok ulertzen du euskara herri honetan? Izan abenduaren 3ko data buruan, orduan argituko baitzaizkizu zalantzak. ARGIAk kaleratuko du euskararen mapa berria, ikerketa soziologikoak egiten dituen Aztiker kooperatibaren laguntzaz osatua. Zein dira euskararen ulermenari erreparatuta, herriz herriko ehunekoak?

Hernaniko “Euskara Ari Du” herri ekimenean du sorrera lan honek. Sorrera emozionala behintzat bai. Dagoeneko ezagun den Egia Eredua-ren bidearen jarraitzaile, Hernanik 2016an ekin zion euskarari eusteko erronkari. Parte hartu zuten hamai-ka herritarrek, bakoitzak aste betez euskaraz bizitzeko konpromisoa harturik. Asko izan ziren zazpi egunez Hernanin euskara hutsean bizitzea lortu zutenak. Ez euskara ulertzen duenari erantzuna hizkuntza berean emateko eskatuz, baina bai adieraziz “zuk ez baduzu egin segi zurean, baina nik eman dut salto eta euskaraz egingo dizut”. Sortu ziren orain arte erdarazko elkarrizketak izaten zirenetatik elkarrizketa elebidunak, eta behin buruak “klik” eginda, anitz dira eronkarekin jarraitzea erabaki dutenak. Erronka izatetik bizitzeko modua izatera pasa da.

Euskarari eutsi diotenetako askok hartu zuten emaitza sorpresaz. Horieta-ko bat da Pello Zubiria, astekari honeta-ko kazetari beteranoa. ARGIAren 2543. zenbakian argitaratutako kronikan azaldu zuen zein izan zen bere sentsazioa eta sortutako galdera: “Orduan, orain arte buruan izan dudana euskararen



Hurrengo asteetako ARGIArekin jasoko dugu mapa.

ulermen mailen mapa okerra izan al da? Zein da benetan Euskal Herriko euskararen ulermen maila? Zein da errealitatea?”.

Lerrook ez dira hizkuntza politiken hurrengo urteetako helburuak zein izan behar diren esateko idatziak –ez dut uste horretarako gai naizenik, eta uste-ko banu ere, agian asmo ambiziooegia litzateke hori–; benetako hizkuntza politika sendoak eta ausartak nahi ditut, besterik ez. Mapa honen helburua xumeagoa da agian, ez garrantzi gutxiagoa, ordea: gure hizkuntzaren ulermen datuei begiratuta, herritarrei modu bisual batean erakustea uste baino leku gehiagotan bizi gaitzezkeela euskaraz, edo probabilitate handiagoa dugula gure hizkuntza ulertzeko, ez ulertzeko baino. ■

## Bertso Txapelketako finalerako sarrerak zozketan ARGIA jendearentzat

Barakaldoko BECerako lau sarrera zozketatuko ditugu ARGIA JENDEaren artean: bi sarrera bikoitz izango dira. Zozketan parte hartu nahi baduzu, idatzi komunitatea@argia.eus helbidera eta eman izen abizenak, telefonoa eta helbidea. Parte hartzeko azken eguna abenduaren 10a izango da, eta hurrengo egunean egingo dugu zozketa, irabazlea www.argia.eus webgunean iragarri.



## “Zautela” ikusgai: Txapelketako bertsolariei elkarrizketa biziak




Ostegunero igoko dugu argia.eus webgunera Kattalin Minerrek bertsolari bati eginiko elkarrizketa. Lehen biak ikusgai dituzu: Miren Artetxe eta Sustrai Colina.

## AGENDA

### Abenduak 2, Usurbilen, Pirritx, Porrotx eta Marimototsen Borobilean lan berriaren aurkezpena ARGIAren alde.

- ARGIAren Adiskideak Usurbilgo Taldeak bi emanaldi antolatu ditu egun bererako: 16:00etan eta 18:30ean.
- Sarrerak eskuratzeko: Usurbilgo Bordatxo tabernan eta Marije arropa dendan; Lasarteko Artizar tabernan; Hernaniko Leokadisti liburudendan; Astigarragako Ikatza tabernan; Urrietako Ezeizan; Martuteneko Arantzazuko Ama Ikastolan eta Zumaiako Tipitaki kafetegian. Edo www.argia.eus-en dendan.





# Andere handi iduri

XX. mendeko abestia da *Tupintegiko Roxali*, Iparraldeko jendartea traumatizatu zuen gertakari baten lekuko. Musika alegera, hitzen arteko soinu jokoak, irudimena akuilatzen duten erranak eta agerpenak: guztiak, Parisera sehi joan emazte gazte batez burlatzeko eta irri hantuak askatzeko herrietako ostatuetan gizonak biltzen zirenean.



**Itxaro Borda**

IRUDIA: AINARA AZPIAZU "AXPI"

II. Mundu Gerra bukatu zenean, Paris inguruan beso eta esku premia bazeo berreraikuntzan lanean aritzeko eta 1947ko Marshall Planaren diru-laguntza erraldoiek iragartzen zuten garapena segurtatzeko. Ez ziren orduan Iparraldeko neskatxak baizik joan, Hegoaldeko askok ere exodoaren bidea hartu baitzuten, *bonne espagnole* gisa lan egiteko. Parisko burgesiako etxeko andere bakoitzak berea nahi zuen garbiketara egiteko, haurrak zaintzeko eta bere jabetasun sentimendua indartzeko, lo, ase eta diru apurraren trukean.

*Tupintegiko Roxali* bertso sailaren egi-leak ezagutzen zituen Pariserako bidean zebiltzan herritarrak, arrebak behar bada, egilea nabarmenki gizonetzkoa dela azaltzen dutelako koplak hauek. Gizonak zituzten denbora haietan kultura sorkuntzaren giderrak kontrolatzen eta partekatzerik gabe eramaten. Mutiko gazteak ere ukitzen zituen lurraldearen odol huste horrek. Alta trufa zakar gutxiago jasan zuten, nahiz eta irriz lehertzekoa den Niko Etxart eta Anje Duhaldek eskaintzen diguten Larraineko Ligeix handiak onduriko *Buneta eta Txapela* izeneko sorta.

Herrian geldituen eta Parisera des-terratuen arteko leizea zabalik dago oraindik Ipar Euskal Herrian: hirian bazeo (ustez) zepotik ateratzeko bidea, *aberats izan gabe auher bizitzeko*

lana, berritasuna, norberak bere burua anonimoki errealizatzeko moldea. Herrian aldiz *sutondo xokoan* kontrol sozial bortitzaren hegalpean laborari, garbi eta sano irauteko ziurtasuna bazuen edozeinek:

*Ni ja nahi nuk egon buneta kaskuan,  
Ene sor-lekhü maite Uxkal-Herrikuan.  
Ihurk e jakin-gabe zer dudan goguan,  
Kobla zunbaiten huntzen süthondo-xo-  
kuan.*

Hiriaren ikuspegi apokaliptikoa hedatzen zuten gazteentzat plazaratzen ziren *Herria* edo *Sokorri* bezalako kazetek: neskentzat bereziki gal leku amorala zen, etxeko jaunen umeak funtzionario bihurtzen ziren, beraz alferrak, gure mundu nekazaletan gaur arte irauten duen sinestea. Laborantzaren alorra erabat aldatzen ari zen, mekanizatzen, eta herriak desertatzen. Elizak, emazteen partitzeak eragiten zukeen drama biguntzea zuen helburu, sarkasmoa eta trufa erabiliz. Nesken hezkuntzan sartzen zen adibidez 1952an Piarres Narbaitzek (1910-1984) plazaratu *Kattalinen Gogoetak* liburua (Elkar, 1999). Haren eskutik daukagu halaber *Xaramela* bilduma, 1951koa, belaunaldiz belaunaldi emendatzen doana. Oroz bat, nehork ez zuen *Parisko Lili Roxali* bat bilakatu behar emazte gurbila eta prestuaren ordez:

*Parisko Lili Roxali  
Bai frantximent bai t'es xoli...*

Ez dakigu zuzen nork izkiriatu zituen *Tupintegiko Roxali* titulua duten koplak. Letrak berriak ziren, bai eta melodia ere antza. Amak kantatzen zituen Parisen sehi zegoela ikasirik. Beraz 1950. urtean jadanik famatuak ziren. Pentsatzen ahal da *Eskualduna* (1944 arte) edo *Herria* -ko apez idazle baten lumatik isuri obra dela. Hala uste dut behintzat, noizbait nonbait, Ithurralde izen goitiaz horniturik ikusi nuelako. Eta hori Piarres Lafitten (1901-1985) bigarren deitura zen, pseudonimo gisa baliatzen zuena arte-tarik. Funtsean, testuaren jabetasuna, luhusoarraren umore kokin eta zakarra-ri ongi legokioke.

*Tantilulilu tiluli...*

Emazteen desterratzea eta euskarari uko egitea parez zihoazen bertsolariaren mihi puntan, Parisek mamu erral-doia-aren papera betetzen zuelarik. Emakumeen bizkar jarri zuen Iparraldeko apezkraziak (notableek eta etxeko jaun-ek ere ondorioz) euskararen galtzearen zama. *Tupintegiko Roxali* ospetsuan ugariak dira lotura horren zantzuak: *arrunt kaskoin..., ez dio "bonxur" deneri..., hari eskuara ez aski, baina frantsesa balaki..., hago eskualdun Roxali...*

Ikusten da halaber bi mundu gerren garaitik hona euskara nola fetixizatua izan zen. Arana Goiriren nazionalismo irakaspenek muga laster pasatu zuten eta kantu honen egileen taldeko *happy few* horiek euskaltzaleak ziren, horietatik zenbait 1940tik hara Vichyko gobernuaren ideiekin konponduko zirelarik *Aintzina* hilabetekariarekin adibidez. Beste aldetik, bere burua esklabo gisa saltzera lerratuko ez zen klase sozial erran baten jabetza zen euskara urte haietan. Nekazari eskualdeetako buruzagi intelektualak ziren moralaren zaindariak, eta hauentzat Baiona bera, leku deabrutua zen: gorriekin harremanetan sartuz, bertan, odolaren garbitasunarekin batera, hizkuntza ere galtzen zen.

*Tupintegiko Roxali*  
*Tantilululu-tiluli*  
*Tupintegiko Roxali*  
*Paristik zaiku itzuli*  
*Dena fazoin*  
*Dena takoin*  
*Arrunt kaskoin...*

*Tupintegiko Roxali*  
*Paristik zaiku itzuli.*  
*I-i-i-i.*

Roxaliren sortetxearen izenetik beretik isurtzen da kantua egilearen ironia soziala: tupinak frankotan lurrez dira, ez urrez, ahulak, hauskorak, beraien sabel hantuekin nahikoa barregarriak. Tupintegian urguilu jasan ezin zerbait baze-goela nabaritzen da bertso hauetan. Jasan ezina, egiazki aberatsa eta puxanta den auzoarentzat bistakoa denez.

*Andere handi iduri*  
*Tantiruriru-tiruri*  
*Andere handi iduri*  
*Ez dio "bonxur" deneri*  
*Ezpain gorri*  
*Ile hori*  
*Begi zuri...*  
*Andere handi iduri*  
*Ez dio "bonxur" deneri.*  
*I-i-i-i.*

Hemen agertzen da klase mespretxuaren eta genero apalestearen arteko gurutze-gunea. Makillatzen zen emaztea,

frantsesa trabukatzen baldin bazuen gainera, prostituta itxuraren ezaugarriez apaintzen du olerkariak, Roxaliren kaltetan, irri egin araztea xede duelarik kontsonante ezberdinak uztartuz, *tantiturruri-tiruri* eta *i-i-i-i* soinuek erakusten diguten bezala!

*Karrikan xut-xut ibilki*  
*Tantikukiku-tikuki*  
*Karrikan xut-xut ibilki*  
*Ai espantuka badaki*  
*Luxe luxe*  
*Mehe mehe*  
*Ai tetele*  
*Karrikan xut-xut ibilki*  
*Ai espantuka badaki.*  
*I-i-i-i.*

Roxali itxuratzen dugu herriko karrikan aztalekin zarata eginez paseatzen. Parisera joan eta zerbaitetan lortu duela erakutsi gogo du, ikasi duela, baina bertsolariak ez dio barkatzen: edozer egingo duela ere *espantero* bat baizik ez dateke, ez du balio indarririk egin dezan, ez dagokio bere jatorrizko klaseari, haurrak sehi eta mutil saltzen dituenari

www.bilbohiria.eus

**BI-96.0-FM**  
*Bilbo Hiria irratia*

20 urtez euskal taupada

Anje Duhalde eta Aire ahizpak  
 Mikel Urdangarin eta Izaro  
 Ruper Ordorika eta Rory McLeod  
 Zea Mays eta Cris Lizarraga  
 Txuma Murugarren, Petti eta Rafa Rueda  
 Hedoi Etxarte eta Maisha MC  
 PILT eta JP Lohian  
 Xabi Aburruzaga eta Bilbo Hiria irratikoko lagunak

**Erroa**  
 argitaletxea



Elkar dendetan eta Durangoko Azokan salgai!!

hots, urgulutan sartzea: bakoitza bego bere tokian eta apezari azken hitza.

*Hari eskuara ez aski  
Tantikukiku-tikuki  
Hari eskuara ez aski  
Baina frantsesa balaki.  
Kiskun kaskun  
J'en suis kaskun  
Pas eskualdun.  
Hari eskuara ez aski  
Baina frantsesa balaki.  
I-i-i-i.*

Desafioz bezala, Roxalik bere euskaldun nortasuna ukatzen du *j'en suis kaskun* ahoskatzen duelarik. Edo kantaren egilearen fantasma da. Frantsesa lardaskatzen duelako, hutsen beldurrik gabe, uste du euskara baztertzen duela, biak batera ez direlako bizitzen ahal. Hamalauko gerratik itzuli ziren soldaduei kasik gauza bera leporatu zitzaizen: larriki kolpatuak izateaz gain, abesten zen euskara ahantzi eta frantsesa ez zutela ikasi...

Baina Tupintegiko Roxalik euskaldun geratzeko aukera zeukan egilea-

ren gomendioak jarraitzen baldin bazituen:

*Parisko lili Roxali  
Tantilulilu-tiluli  
Parisko lili Roxali  
Bai frantximant, bai t'es xoli...  
Utzan moda  
Utzan tinta  
Ai potreta...  
Parisko lili Roxali  
Hago eskualdun Roxali!*

Emazte eta ederki ezkondurik etxeko andere plantakoa bilakatzeko bidea seinalatzen zion kantariak azken koplak: makillatzea eta distiratsuki janzteari muzin egin eta euskaldunagoa agertuz. Orokorrean, gaur egun ere, euskaldun emakumeak ez dira baitezpada panpox jartzen, alderantziz, euskaldun izaeraren arropa-kodea nahikoa homogoneoa da: kolore ilunak, lemak kamisetetan, bilo moztura zorrotzak... bertsolariak Roxalirentzat finkatu ereduak barneratu zituzten emazte belaunaldiek gaurko egunera arte.

Gutariko franko Roxali horien haur hotzak gara. ■

» Elizak, emazteen partitzeak eragiten zukeen drama biguntzea zuen helburu, sarkasmoa eta trufa erabiliz. Oroz bat, nehork ez zuen *Parisko Lili Roxali* bat bilakatu behar emazte gurbila eta prestuaren orde

» Emakumeen bizkar jarri zuen Iparraldeko apezkraziak (notableek eta etxeko jaunek ere ondorioz) euskararen galtzearen zama. *Tupintegiko Roxali* ospetsuan ugariak dira lotura horren zantzuak



# EUSKARAK 365 EGUN

**EUSKARAREN ASTEA**  
 AZAROA 23 - ABENDUA 3



---

**HAMAIKA EKITALDI EUSKARA/Z GOZATZEKO:**

- KIKE AMONARRIZ
- PIRRI TX ETA PORRO TX
- JOSEBA TAPIA ETA BESAMOTZAK
- KANTARI GASTEIZ KARAOKEA
- E.T.S.

- MINTZODROMOA
- DOKUMENTALAK
- XABIER SAN SEBASTIAN
- ANTZEZLANAK
- IKUSKIZUNAK
- UMEENTZAKO JOLASAK

- IPUIN TAILERRAK
- GINKANA
- KALEJIRA
- ZINEMA
- TXOKOLATADA

SARTU HELBIDE HONETAN  
ETA EGIN AUKERA:  
[www.vitoria-gasteiz.org/euskara](http://www.vitoria-gasteiz.org/euskara)


















# Rafael Chirbesi bizian egin gabeko bisita

Aspaldiko zor bat kitatuta, Rafael Chirbes zenaren etxean egon gara, Beniarbeigen, Alacanten. Aukera baliatu dugu, ez bakarrik idazlearen izena daraman fundazioaren zeregina ezagutzeko, baita idazlea jaio eta hiltzen ikusi zuen geografia, haren liburuetan hainbestetan agertzen dena, zapaltzeko ere.



**Aritz Galarraga**

@aritzgalarraga

ARGAZKIA: PHILIPPE MATSAS-OPALE

Azken mezua 2013ko ekainekoa da. Udaberri hartan *En la orilla* izugarria atera zuen Rafael Chirbesek, elkarrizketa proposatu nion, baina ea utziko genuen uda pasa osterako: “Ezin lehorrago nago, ez dakit zenbat elkarrizketaren ondoren”. Jada 2008an, *Crematorio* ikaragarria atera eta gero, ondo damutu nintzen, autoa hartu eta Beniarbeig aldera joan ordez, lehen elkarrizketa hura distantziatik egin izanaz. Auskalo zer gertatu zen gero 2013ko udazkenean, ez dut gogoan, baina Chirbesi buruz izan nuen hurrengo berria 2015eko abuztuakoa da. Haren heriotzak Galizian harriatu gintuen, inoizko oporraldirik segur aski gozoenean. Alferrrik izango ziren handik aurrerako temak: Chirbes bere etxean elkarrizketatzeko aukera joana zitzaidan, behin betiko.

Ez, ordea, Chirbesen etxea bisitatzeakoa. Are, haren familiak, ilobek, iloba batek, Manolok, osabaren omenezko fundazioa sortu eta Beniarbeig aldeko etxea bisitatzeakoa aukera eskaintzen zuela jakin nuenean. Osabaren nahia izan zen: ia hogeitaz, azkenak, bizi izandako etxea bisitariei irekitzea, bertan pilatutako liburuak eta testuak erakusgai jartzearekin batera, kontsulta eta ikerketarako. Biblioteka, 6.000 ale ingurukoa (tartean Bernardo Atxaga, Kirmen Uribe, Harkaitz Cano), katalogatzeko lanetan dago orain. Akaso garran-

tzitsuagoa: idazlearen hainbat eskuizkribu, argitaragabeak, nobelak tartean, irakurri daitezke bertan. Nobela argitaragabeak, idazleak gazte garaian idatzi, eta bizian sekula publikatu nahi izan ez zituenak. Aukera izan baduen arren, sendiak ere argitaratuko ez dituenak, “nor gara gu orain osabaren borondatea zapuzteko”. Besterik dira idazlearen memoriak, argitaratzeko-edo gertu utzi zituen sei alekiak.

Fundazioak egiten duen beste lanetako bat, hain zuzen, idazlearen obra zabaldu eta ezagutaraztea baita. Urte bukaeran argitaratuko dute, Valentziako katalanera itzulia, *La buena letra* eleberria. Chirbes, katalan hiztuna, beti kezkatu izan zuen ama hizkuntzak, espainolez eta Gaztelan eskolatua izanagatik (aita hil zitzaionean, burdinbideetako langileen umezurtzen kolegioetan) sekula galdu ez zuenak. Katalan hiztuna izan, baina katalanez ez idazteak sortzen zion kontraesanik, *De lugares y lenguas* artikuluan adierazi bezala: “Berriz sentitu nuen hizkuntza hori nire idazketarako galdu izanaren mina”. *La buena letra* eleberriko protagonistek, hartara, aukera izango dute aurki berez hitz egiten zuten hizkuntzan jarduteko: “Arraroa egiten zitzaigun”, dio Manolok, “aleman, ingeles, frantsesera, are txinerrara itzultitako idazle bat bere ama hizkuntzan ezin irakurtzea”.

Anagrama etxearekin argitaratu berri den *El año que nevó en Valencia* narrazio laburrean ere ageri da hizkuntzen arteko talka, idazleak ulertzen zuen moduan agertu ere, klase gatazka baten gisa: hiriburuko jendeak gaztelaniaz egiten du, herrietatik datozenak valentzieraz, bote-redun eta menekoen arteko arrakala agerian geratzen dela. Fikzioaren baitan beti, baina idazlearen biografiaren zantzuak igar daitezke kontakizun horretan: aita hil berri, familia elkartu egiten da, agur urrina duen urtebetetze festa batean. Ez alferrrik, narratzaile haurra, Chirbesen egiazko Avilara joan ordez, fikziozko A Coruña joango baita: “Ordurako, hasia nintzen jakiten ez ginela inongoak”. Joan aurretik sorlekuari atxikimendua erakutsi ondotik, noski: “Horren guztiaren parte izan nahi nuen”. Nazioarteko kongresu bat antolatuko du Chirbes fundazioak 2018an, *Mimoun* lehen eleberria argitaratu zela 30 urte joan direla ospatzeko.

## Marina Alta

Dena den, Beniarbeig aldera egindako bidaiaren asmoa ez da bakarrik izan Chirbesen etxea ezagutzea. Ez bakarrik mimo handiz idazlearen izena daraman fundazioa daraman Manolo iloba ezagutzea. Idazleak arnasten zuen geografia ezagutzeko nahia egon da halaber, ikusteko, usaintzeko, ukitzeko haren paradisu galdua, paradisu berreskuratu-



tua. Esana dugu, zortzi urte zituenetik han-hemenka ibiltzera behartua, Avila, Leon, umezurtz eskola batetik bestera, unibertsitate ikasketak egitera gero Madriler, irakasle Marokora, Bartzelona, A Coruña orain egiazkora, hamabi urte luzez Extremadurako herri txiki-txiki batean bizi izan zen. Ahaztu gabe, *Sobremesa* aldizkari gastronomikoarentzat lanean, munduan zehar kurritu zituen bazter guztiak (*El viajero sedentario* liburuan bildu zituen artikulu horietarik zenbait). Eta, hala ere, “inpresioa izan dut bidaia guztiak balio izan didatela jatorrizko lekua hobeki irakurtzeko”. Literaturan behin eta berriro bueltatu zen bere lekuetara, bere geografiara, bere herrialde txikira: “Itzuli izan naiz –*La buena letra, Los disparos del cazador, La larga marcha* eleberrietan–, ia nahi gabe, nire bizitzako iragan urruneko istorioetara, hemen gertatu izan zirenak, Valentzian”. Azkenik fisikoki bueltatu zen arte, 2000. urtearen bueltan.

Beniarbeig, Marina Alta, Alcantera. Tavernes de la Vall digna, fikzioan Bovra deitzen duen jaioterritik 40 minutura, gurasoen Dénia hamabostera, *Crematorio* edota *En la orilla* alimalekoetan Misent gisa agertzen dena. Atzean Segaria mendia, aurre-aurrean Mediterraneo zabala (“arkakusoz betetako pakidermoa”), Marineta Casiana hondartza, aitona-amonen etxetik hain gertu, non ixten den nolabait Chirbesen zirkulu bitala, haren errautesak bertan barreiatuta. Dénian berean, hiltzear zegoelarik, familia bildu eta azken bazkaria egin zuten jatetxea. Edo azken urteak eman zituen etxe apartatutik herri kaskora egiteko, luze gabe tabernetara, laranjondoaren artetik egin beharreko bidea. Bazuen, literaturan, maxima bat: dagoena kontatu behar da, baten bat molestatu arren, ikusten dena. Eta Rafael Chirbesek etxetik ikusten zuena hau da. Liburuetan harrapatu zuena. Higiezin burbuila lehertu ondorengo paisaia. Baratz abandonatuak. Sasitza. Udazkeneko euriek belarrez estalitako hondakinak. Birkalifikazio urbanoa lortzeko atarian geratu ziren lurrak.

Arrazoi duzue: asmoa ez zen bakarrik etxea ezagutzea. Ez bakarrik mimo handiz idazlearen izena daraman fundazioa daraman Manolo ezagutzea. Ez eta idazleak arnasten zuen geografia ezagutzea ere. Esango nuke asmo nagusia bizian ezin egin izan nion bisita egitea izan dela. ■

## KULTURKRITIKA

» LIBURUA

# Try (just a little bit harder)



Amaia Alvarez Uribe

Uxue Alberdik helduentzat argitaratu duen laugarren lana da *Jenisjoplin*. Idatzitako bi ipuin bildumetan norberaren eta ingurunearen arteko aritu zen, hainbat girotan kokatu zuen irakurlea, ezagunetik arrotz nahian. Ondutako bi nobeletan aldiz, ohiko lekuari kanpotik begiratu nahi izan dio memoria ari-keta bat eginez beste begirada batez.

Alde batetik, euskal gatazkari (edo gatazkei) buruz hitz egiten du. Garai baten erradiografia egiten du mende aldaketari begira jarritz. 1980ko hamarkada hasieran jaio zen protagonista den Nagore Vargas, eta 2010ean 28 urterekin hiesa diagnostikatu diote, ETAk armak utziko zituela adierazi zuen urte berean.

Beste alde batetik, euskal identitateari buruz mintzo da, egungo subjektu politikoa marrazten ahalegintzen da bertako pertsonaien, gertaeren eta hausnarketen bidez. "Klasearen, aberriaren eta sexuaren izenean nork bere amorrua katalizatzen zuen albokoaren aurka. Ni ikaragarri berotzen ninduen horrek guztiak" dio Nagorek.

Hau guztia Janis Joplin musikari kaliforniarren itzalpean. Sexua, droga eta rock and rolla izango ditugu harietako batzuk, hauen eragin eta ondorioak. Bizitza intentsitatez, konpromiso politikoz bizitzen du protagonistak, 27 urterekin gaindosiaren ondorioz hil zen abeslariak bezala. Nagorek, ordea, diagnostikoarekin, gelditzeko eta ingurura eta bere baitara begiratzeko aukera izango du.

Flash-backetan kontatuko dizkigu bere haurtzaro eta gaztaroa inflexio puntura


## *Jenisjoplin*

UXUE ALBERDI

Susaa, 2017

*Uxue Alberdi Estibaritz idazlea; Elgoibar, 1984.*

(ARGAZKIA: DANI BLANCO).



heldu arte. Hortik aurrerakoak tartekatuko ditu oroitzapenekin, eta horrela, garai aldaketa protagonistarengan hezurmamituko da, kultura epikotik zaugarritasunaren kulturara pasatzen ari garela adieraziz.

Hiru kapituluek zenbait argazki utziko dizkigute: euskal herri eta hirien tira-birak, edo zenbait bidaietako bizipenak. Horrekin batera, taberna, etxea, kartzela, zoroetxea, ospitalea, eliza, edo kaleari ere leku egingo zaie, mota askotako kokapen eta baldintzak eskainiz.

Gure errealitatearen bizimodu, kontraesan eta bertsio desberdinak erakutsi nahi dizkigu. Horretarako gelditzeko gonbitea egin digu, orain artekoari eta ingurura begiratzeko, *Jenisjoplin*-en hitzetan pixka bat gehiago saiatzera pasioz eta lasaitasunez, kontzientziaz eta zaintzaz bizitzeko. ■

» KONTZERTUA

# Emozioak



Montse Auzmendi

Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren abonuzikloaren bigarren kontzertua ez da saio arrunta izan. Kalitate eta sentimendu asko pilatu ziren eszenatokian, topaketa ahaztezina bihurtzeko. Alde batetik, egitarau potentea, gero komentatuko dudana, bi obra zoragarri osatua; eta, beste alde batetik, arrazazko bakarlaria, musika eta bere soinu-tresna modu ikaragarri sentitzen dituen eta sentimendu hori jendearengana helarazten duena. Joaquín Achúcarro piano-jotzaile bilbotarrak azaroaren 1ean 85 urte bete zituen, taula gainean, artista handiek bezala, eta sasoi.

Maurice Ravelek *Esku ezkerrentzako piano eta orkestrarako kontzertua*, *Re maiorrean* Paul Wittgenstein pianista austriarrari dedikatu zion, musikari honek (Ludwig Wittgenstein filosofoaren anaia) eskuineko besoa galdu baitzuen I. Mundu Gerran. Obra ederra da, mugimendu bakarrekoa, non ehundura orkestralak eta ñabarduren aniztasuna oso garrantzitsuak diren. Nahiz eta zailtasunez beterik egon, Achúcarrok lezio bat eman zuen. Jakin zuen egokitzen gaur egungo bere teknika bertsio dotorea egiteko, ez hain perfektua, baina bai benetan iradokitzailea. Bis bezala, Chopinen *Nokturno* bat oparitu zuen, oso intimista, delikatua eta sentitua.

Saioaren bigarren zatian Euskadiko Orkestrak eta Robert Treviño zuzendari titular berriak lan handi bat eskaini zuten: Dmitri Xostakovitxen *11. Sinfonia, sol minorrean, op. 103; 1905. urtea*. Sinfonia erraldoi horrek 1905. urteko Errusiako igande odoltsua oroitzen

## Maurice Ravel eta Dmitri Xostakovitxen lanak

EUSKADIKO ORKESTRA SINFONIKOA

Zuzendaria: Robert Treviño.  
Bakarlaria: Joaquín Achúcarro.  
Bilboko Euskalduna Jauregia.  
Azaroaren 4a.

du, estilo programatikoa azalduz. Lanaren lau zatiak (*Neguko Jauregiko plaza*, *Urtarrilaren 9a*, *Betiereko oroimena* eta *Tocsin* –alarma seinalea–), ondo marraztuta agertu ziren, pasioz. Aitzakia ona izan zen Xostakovitx hau Treviño zuzendariaren nortasuna ikusteko. Oso gaztea da, 34 urte besterik ez ditu, baina zuzendari kanporakoia da, dena ematen duena interpretazioetan, buru-belarri sartzen dena partituran. Konektatu egin zuen entzuleekin eta agian konexio hau da Euskadiko Orkestrak une honetan behar duena. Zorte on! ■

Robert Treviño zuzendari estatubatuarra (Fort Worth, Texas, AEB).





# Ongi etorri ikus-entzuleak



**Kattalin Miner**

@MKattalin

ARGAZKIA: GARI GARAIALDE / XDZ

Ongi etorri ikus-entzuleak, beste behin ere, bertsoaren festara! Barka tonua baina igandean, Amurrio bisitatzeko aukera beste baterako utzi eta hainbeste goraiatu izan didaten *streaming* bidezko jarraipena egin nuen eta dirudienez txertatu egin zaizkit Aitzol Barandiaran eta Uxue Alberdik sortzen duten kirol eta literatura artean dabilen tonu hori.

Alde batetik nire puntuaketa pertsonalak hartu nituen, eta ordena ia osoa asmatu zidaten nire epaile-intuizioek. Hori bai, denak 100 bat puntutik gorago, eskuzabala nauzue jaun-andereok! Bestalde, bertsoaren bukaera asmatzera nola, Alberdiren iruzkinak asmatzera ere jolasten saiatu nintzen, eta onartu behar dut, harekin alderatuta, bertsoaz tutik ez dakienaren konplexuz ere amaitu nuela kasik. Beraz, gaur ni isildu eta haiei utziko diegu hitz egiten.

Colina nabarmen sumatu nuen nik gaineratik, egiten dakien hori egiten dakien bezala egiten, ezta?

– Bai Uxue, a zer-nolako arte lana egin duen urruñarrak, finaleko maila erakutsi digu, bai horixe!

– Dударik gabe Aitzol, izugarri gustatzen zait nola sartzen den roletan, ia-ia zu sentitzen zara performatzen duen pertsonaia horren haragitan. Gaur goitik-beherako saioa egin du, esango nuke txapelketa bere osotasunean hartuta, inork egin duen saiorik onena egin duela.

Segidan Gaztelumendi, perfekto, zuzen, konstante, eta gero ginda, bere berezitasuna: kartzelakoa. Entzuleok eskertu genuena, bere sinadura dena, eta BEC-erako billetea garantiekin eman ziona.

– Pentsa ze erregularra den mutil hau, aurreko saioan atera zituen puntu berberak atera dituela gaur ere.

– Beldurra ematen du Beñaten erregulartasunak, Aitzol.

– Baina dudarik gabe, urterik urte geroz eta handiagoa den bertsolaria dugu.

Jon Maiari antzematen zaio benetan finaleko oholtza zapaltzeko duen gogo, eta onenak ematen ikusi dugu azken saioetan.

– Agur kutsua hartu diogu azken bertsoari, Uxue?

– Aukerak baditu Aitzol, hortxe-hortxe ibiliko da.

Nerea Ibarzabal, fenomeno berriz ere.

– Txapelketa ederra egin du markinarrrak. Txunditu egin gaituen bertsolaria da bera! Zer diozu, Uxue?

## AMURRIOKO FINALAURREKOA

Azaroaren 19ko saioaren sailkapena:

Sustrai Colina (701 puntu)

Beñat Gaztelumendi (694,5)

Jon Maia (681,5)

Nerea Ibarzabal (675,5)

Jon Martin (668,5)

Etxahun Lekue (615).

## FINALAURREKOETAKO SAILKAPEN OROKORRA

Sustrai Colina (705,5+701)= 1.406,5 puntu

B. Gaztelumendi (694,5+694,5)= 1.389

Jon Maia (675+681,5)= 1.356,5

Jon Martin (671+668,5)= 1.339,5

Nerea Ibarzabal (663+675,5)= 1.338,5

Etxahun Lekue (656,5+615)= 1.271,5

## 2. SAIOA JOKATU GABE DUTENAK:

Maialen Lujanbio (750 puntu)

Aitor Mendiluze (740,5)

Aitor Sarriegi (705)

Igor Elortza (703)

Agin Laburu (690)

Miren Amuriza (678,5)

Oihana Iguaran (671)

Jone Uria (669)

Julio Soto (668,5)

Unai Agirre (667,5)

Alaia Martin (651)

Iñaki Apalategi (648)

– Bada Aitzol, niri aspaldian gehien gustatzen zaidan bertsolarietako bat dela, maiteminduta nauka bertsolari honenek.

Ni ere bai Uxue, eta entzun zen txalo zaparradagatik, pentsa dezakegu entzulegoa ere irabazi duela.

Jon Martin txapelketaz agurtu zen hasierako agurretik.

– Ez du eskatzen genion bigarren salto hori egin.

– Ez da batere erraza Aitzol, baino ze ondo defendatua, aizu!

Etxahun Lekuek ere adio txapelketari.

– Gaur, berak esan bezala, milagrorik ez Amurrian.





– Baina ze umila den, ze elegantea...

Eta hauxe dena Amurriotik ikus-entzuleok, azken dantza hasi da eta emozioz beteriko festa da Bertsolari Txapelketa Nagusiko fase honetan biziko duguna. Zuekin berriz izango gara Donibane Lohizunen, ongi izan eta segi bertsoaz gozatzen! ■

Egilea: Ana Zambrano

# Hitz gezidunak

Gaia: Frutak

	ABEREA PALAUAR	HARRITU, ZURTU SOBERA, GEHIEGI	3 MUNIZIPAL	DIRU KEINADA	
	ARLOTE, TRAUSKIL 2				
1 ARRISKU	KARDATZEN DUENA ROENTEGEN			BAILARA, HARAN ANKARAR	ERABILTZEN EZ DEN ZERA NAFARROAKO HERRIA
		ILUSENTI ZELATAN			
LITROA HOR DAGOENA	POTENTZIA UNITATEA KONTSONAN- TE ERRE- PIKATUA		4 ZEIN		
		ARAZO, GATAZKA IZATEA		KIROL LASTERKETA IA-IA	
URTEAREN BEDERATZI- GARRREN HIL ZIZARE			GALDEZKA LARRUAZA- LEKO ZULOTXO		KONTSONAN- TE BIKOITZA TONA
	TRAPU SAL TSA HOTZA			JOXEAN ..., POETA GIPUZKOAR GAIXO	
	NARE, LASAI KANONEN ARABERAKO				

## Sudokua

Bete itzazu gelaxkak 1etik 9rako zenbakiak idatziz, zutabe, lerro eta 3x3ko koadro bakoitzean errepikatu gabe.

	5				8	3	
9		1		8	6		4
	8	4		1			7
3			6				1
1			2		9	4	
4			7	3		2	6
	7	6					1

## 5x5

Zeharretara eta goitik behera, hitz bera.


- Nafarroako herri-dantza (pluralean).
- Heldu, atxiki (bizkaieraz).
- Antzinako Greziako filosofoa.
- Sarbideak.
- Azal, oskol.


## Ebazpenak

8	7	6	9	4	2	3	1	5
2	8	3	6	5	1	4	7	8
4	1	5	7	3	8	2	9	6
1	6	7	8	2	5	9	4	3
3	2	9	4	6	7	5	8	1
5	8	4	3	1	9	6	2	7
9	3	1	2	8	6	7	5	4
7	4	8	5	9	3	1	6	2
6	5	2	1	7	4	8	3	9

5x5:  
1. Jotak. 2. Obatu.  
3. Tales. 4. Ateak.  
5. Kuskua.


## Danel Solabarrieta. Zientzia guztion eskura



**Danel Solabarrietak (Ondarroa, 1976) psikodidaktikako eta psikopedagogiako ikasketak ditu, eta Lehen Hezkuntzako diplomaduna da. Hamar urtetik gora darama Elhuyarren lanean eta fundazio horrek Europako hainbat herrialdetara eramane duen STING programa koordinatzen aritu da azken urteetan. Zer egin hezkuntzaren alorrean neskek zientzialari izateko pausoa eman dezaten?**

## “Zer nahi dugu, oso argiak diren ikerlari gutxi batzuk edo denetariko ugari?”



Uxue Apaolaza

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

### Estereotipoen pisua

“Ikertzaile asko behar ditugu, beraz, ezin dugu jende bikaina bakarrik hartu zeregin horretarako. Zientzialariaz dagoen irudia da oso azkarra den norbait, lana baino egiten ez duena, gizona, zuria eta klase altukoa. Estereotipo horretatik urruntzen garen heinean, zailagoa da norbaitek zientzialaria izango dela aukeratzea. Ingalaterran egindako ikerketa batean ikusten da hori, Aspires izenekoa: 10 urtetik 14 urtera arteko gaztetxoekin egin dute, eta orain, 14 urtetik 18 urtera artekoekin egiten ari dira. Diru gutxiko neska beltz bati gehiago kostatzen zaio zientzialari izango dela aukeratzea”.

**Elhuyarren, zure sailaren helburua zientziarekiko interesa sortzea da.**

Bai, hainbat alor dugu horretarako. Zientziaren komunikazioa alorrean, esaterako, publiko orokorarentzako hainbat proiektu dugu: *Teknopolis* programa, *Norteko Ferrokarrila* irratia, *Elhuyar* aldizkaria... Bestalde, zientzia-hezkuntza saila daukagu; horren helburua da gazteei, bai hezkuntza formalean bai ez-formalean, aukerak ematea zientziarekiko ikuspegi erreala izateko. Ez dugu denak zientzialariak izatea nahi, baina bai zientzia ez dezatela errefusatu. Esaten da egungo gazteek oraindik existitzen ez diren lanak edukiko dituztela, eta lan horiek zientzia-gaitasunak eskatuko dituzte. Bestalde, herritar guztiok zenbait erabaki hartzeko erantzukizuna dugu, eta erabaki horiek hartzeko zientzia-gaitasunak behar dira. Non inbertitu erabakitzeke, osasunarekin lotutako erabakiak hartzeko...

**Baina interesa ez omen da nahikoa norbaitek zientzialaria izango dela erabakitzeke. Estereotipoei ere aurre egin behar izaten zaie.**

Denek esan ohi dute zientzia intere-

satzen zaiela, bai gazteek bai helduek. Baina kontua galdera egiteko modua da. Galdetzen badugu zenbat denbora ematen duten gaiari buruz hizketan, gaiari buruz irakurtzen, joaten ote diren erakusketak ikustera... ondorioa desberdina da. Gazteek zientziaz ikuspegi estereotipatua dute. Adibidez, informatika-ikasketak hasi eta sorpresak hartzen dituzte, ez dakitelako, berez, zer den informatika ikastea. Zientzien mundua zenbat eta gertuago eduki, estereotipo gutxiago izango dute hari buruz.

**Zer estereotipo dira ohikoenak?**

Bat da jende oso azkarraren kontua dela. Beraz, zientzia interesatu arren, batzuk ez dira zientzietan aritzeko gai sentitzen. Nerabezaroan hartzen da erabaki hori; nesken kasuan autoestimua baxuagoa izaten denez, gutxiago animatzen dira matematikan edo ingeniari-tzan aritzera. Informazioa eman behar zaie erabaki horiek oinarri sendoko datuetan funtsatuta hartu ahal izateko. Aukeratu behar dugu: zer nahi dugu, oso argiak diren ikertzaile gutxi batzuk, edo denetariko ugari?



*"Talde lanetan, zerra nork hartzen du? Mutilek. Nor arduratzen da dokumentazioaz? Neskak. Irakaslea horretaz ohartu bada eta ikasleei planteatzen badie, haiek segituan ulertzen dute. Aurretik kontzientzia hartu behar da, betaurreko moreak jarri".*

### **Autoestimua ez da izango faktore bakarra...**

Ez, badira gehiago. Adibidez, eskolaz kanpo familiarekin egiten diren jarduerak eragina dute. Ez da dena eskolaren esku utzi behar. Orientazioa ere garrantzitsua da. Erakutsi behar zaie kimika ikasteak ez zaituela eramango zuzenean laborategi batera, zerbait ikasteak ez zaituela lanbide jakin batera mugatzen. Ikasteak ate asko irekitzen ditu, gradu bat ez dago lanpostu bati lotuta. Ibilbideak malguagoak direla transmititu behar zaie.

### **STING programaren helburua erabaki hori hartzeko unean nesken eta mutilen arteko aldea txikitzea izan da.**

Proiektua zortzi herrialdetan landu dugu eta ohartu gara inon ez dagoela inportatzeko harribitxirik, metodologiarik, arazoa gutxi gorabehera berdina dela leku guztietan. Gainera, ez litza-teke ona izango metodologia bat hartu eta inposatzea. STINGen helburua baliabideak ematea da, bi bloketan. Genero kontzientzia batetik, ikasgelako praktikak bestetik. Irakasleen kexa denbora gabezia izaten da gahienetan, beraz hori

konpondu nahi izan dugu, gaia lantzeko topaketak antolatuta. Ez da erraza norberaren estereotipoak onartzea; guk natural egiteko ariketak proposatu ditugu, estereotipo horiek azaleratzeko balio dutenak. Gero horien eragina txikitzeko zer egin aztertzen da. Denbora gutxirekin ari garenean, senez, estereotipoek eragin handiagoa izaten dute; denbora hartu eta gauzak aurretik hausnartzen baditugu, aldiz, estereotipoen eraginak behera egiten du. Guk trikimailu txikiak ematen ditugu: talde lanetan, zerra nork hartzen du? Mutilek. Nor arduratzen da dokumentazioaz, datuak hartzeaz? Neskak. Irakaslea horretaz ohartu baldin bada eta ikasleei planteatzen badie, haiek segituan ulertzen dute. Aurretik kontzientzia hartu behar da, hau da, betaurreko moreak jarri behar dira.

### **2015ean hasi zineten STINGekin, dagoneko emaitzaren bat izango duzue.**

Bai, 2015ean hasi eta aurtengo irailean amaitu genuen. Herrialde bakoitzeko erakunde bakoitzak bere erara egokitu du programa. Guk gure askotariko proiektuetan integratu dugu. Adibidez,

Elhuyar Zientzia Azokan. Ikasleek taldeka lan egiten dute ikertzaile batekin eta proiektuetako batzuk Bilbon aurkezten dituzte... Hor integratu dugu STING programa. Orain, besteak beste, zenbatu egiten dugu zenbat neska etortzen diren eta horrela esku hartu dezakegu. Ohartu gara, adibidez, eragin handia izaten duela mentorea neska izateak.

### **Emango diozue jarraipenen bat proiektuari?**

Bai, hala nahi dugu. Hasi ginenean, duela hiru bat urte, ez genekien nola aterako zen, eta orain jarraitzeko asmoa dugu.

### **Generoarekin lotutako beste baliabide batzuk ere eskaintzen ditu Elhuyarrek.**

Bai, adibidez, asko erabiltzen dugu *Elhuyar* aldizkariko Ekinean atala: emakume ikertzaileei egindako elkarrizketak izaten dira. Izan ere, zer eredu erakusten diegu neskei? Beharbada egokiagoa da Marie Curieri buruz hitz egin beharrean, gertuko ereduak erakustea, ikerketa bat egiten ari den hemengo gazte bat, hondartzara ere joaten dena. ■



Pilaketak Ermuatik Eibarreko Corte Inglesera doazenen artean.

## Altuna-Urrutikoetxea final polemikoaren ondoren, A-8ko peajeak muga administratibo bihurtuko dira

Gipuzkoa eta Bizkaiaren tentsio diplomatikoak gora egin du lau t'erdiko finalaren ondoren eta emergentziak neurri gisa, A-8 autobideko peajeak muga administratibo izango dira aurrerantzean, bi aldundiek adostuta. Zarratik lurretara bitarteko tartea "zona desmilitarizatu" bihurtuko da, nazioarteko komunitatearen begiradapean.

Tertzio Altunazaleek eta Brigada Urrutikoetxeistek ezin izango dute eremu horretan sartu. Xabier Euzkitze analista pilota-estrategikoari egoeraz galdetuta, zera adierazi du: "Nik neutral izan beharko niake, baina ene! Urruti eta Berasaluze entzun nitian erdara hutsean eta belarrimotz horiekin ez diat ezer jakin nahi".

## SAREAN ARRANTZATUA

### Alf itzuli da!



- Zergatik zaude hemen?
- Mazari buruzko txio batengatik. Zoidori ez zitzaion gustatu. Eta zu?
- Bertxiolari konpultsiboa naiz.



## Zerk eragin du Usurbilgo beheraldi masiboa? Hona hipotesi ausartenak

Hainbat egunez komunismoa nagusi izan zen Usurbilen joan den astean, herritarren hesteak arinduz jostatu zen birus bati esker. Batzuek gaitzaren jatorriari azalpena bilatzeko erabili dute barneak husten eta beste inora joan ezinik bakar-gelan emandako denbora luzea, eta hala, teoria kontrajari bi nagusitu dira herrian. Batetik, beherako epidemia Atez Atekoa inposatzen tematzeagatik Jaun Zerukoak igorritako izurria izan dela diotenak daude; ring-aren beste ertzean, berriz, errua

-horrena eta beste guztiarena- erraustegia eraikitzearena dela eta hau hasiera baino ez dela ohartarazten dutenak.

Beranduegi jakin duenez ordea, denak dabilta oker: Bakio eta Zumaiaz bekaitz zikinak bultzaturik *Tronu-Dema* telesaileko ekoizleen arreta bereganatzeko Usurbilgo Udalaren kanpaina izan da guztia. "Banengoen ni, honek ez zuela usain onik", adierazi du Maria Jesus Uzkiario Eusko Jaurlaritzako Gai Komunen Saileko bozeramaleak.



Jaurlaritzako Osasun Sailak Usurbilera bidalitako Panda Antibiruseko langileak, herriko edarietan gauza arrarorik ba ote dagoen aztertzen.



Lan  
berriaren  
aurkezpen  
emanaldia

# OIARDO KIROLDEGIA (USURBIL) ABENDUAK 2, LARUNBATA

bi saio: 16:00 eta 18:30

Sarrerak: aurretik 7 euro, egun berean 8 euro (12 hilabete arteko haurrak doan)

Eskuratu zure sarrera:

☎ 943 37 15 45  
sustapena@argia.eus

Antolatzailea

ARGIAren Adiskideak  
Usurbilgo Taldea

 ARGIA

ERAKUSKETA  
SAN TELMO MUSEOA

# ESPAZIOAREN BARREA (GUERNICA)

2017-11-25  
2018-2-25



La risa del espacio II

## JOSÉ RAMÓN AMONDARAIN

San Telmo Museoa  
Zuloaga Plaza, 1. 20003 Donostia / San Sebastián  
T. 943 481 580 | @santelmomuseoa | #STMGernika  
[www.santelmomuseoa.eus](http://www.santelmomuseoa.eus)

ANTOLATZAILEAK / ORGANIZAN

**STM**  
San Telmo Museoa

**DX**  
donostia  
kultura

**DONOSTIA**  
SAN SEBASTIÁN

**Artium** araba  
álava

ERAKUNDE BABESLEAK / SOCIOS INSTITUCIONALES

**BIRDA**  
ERAKUNDE  
DONOSTIA VASCO

**Gipuzkoako**  
Foru Aldundia  
Kultur, Kirola, Turismo  
eta Berrikuntza Departamentua

**COZAM**  
KULTURA

PATRONO PRIBATUAK / PATRONOS PRIVADOS

**eitb** **ELDIARIO VASCO** **kutxa**